

2008ko otsailaren 14a • XXVIII. urtea  
www.ttipi.net



**Beatriz Oartzabalekin** **03**  
**Anfasen proiektuetaz**

Anfas erakundeak eskualdean duen arduraduna da Beatriz Oartzabal. 2003az geroztik Atentzio Goiztiar programa garatzen ari dira, ezintasuna duten haurrekin.



**Bortziritako eskuz** **33**  
**banakako txapelketa**

Urtarrilaren 26an jokatu zen Bera-ko Eztegarra frontoian Bortziritako eskuz banakako VII. pilota txapelketa. Guztira 95 pilotarik parte hartu dute, 9 kategoriatan.



'PORROTA' ETA 'DESASTREA' IZAN DELA ERRANEZ

**04** **Magnak bertan behera utzi du**  
**Erdizko harrobiaren proiektua**



## DATUAK...

- **Beatriz Oartzabal Anfas erakundeak Baztan-Bidasoan duen arduraduna da. 2003az geroztik ari da hemen lanean.**
- **Atentzio Goiztiar izeneko programarekin hasi ziren, garapenean atzerapena duten edo jasateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko haurrekin lanean.**
- **Urte berriarekin guraso zein haurrentzako tailerrak paratu nahi dituzte martxan. Epe motzera, ezintasuna duten senideekin lan egiteko programa landu nahi dute.**



**Beatriz OIARTZABAL** *Anfas elkarteko arduraduna*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

# «Haur ezinduen anaiekin nola jokatu erakusteko tailerrak egingo ditugu»

Aitor AROTZENA

**Duela bortz urte hasi zineten Atentzio Goiztiar programarekin. Zein balantze egiten duzue?**

Balantzea oso positiboa da. Gainera, Atentzio Goiztiar programatik atera dira orain eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak. Beraz, programaren balorazioa eta horrek ekarri dituen ondorioak ere oso positiboak dira.

**Bertze ekimenen artean, udan udaldu irekiak egin zenituzten...**

Bai gurasoek udara begira zerbait eskatu zutelako atera zen ideia hori. Hiru astetan egin genituen, uztaile bukarran eta abuztu hasieran. Aisialdiaren inguruan beraien neurriaren egokitasunak eskaintza zuzenak: igerilekura joan, zaldian ibili, errekan bainatu, eskulanak egin... Eguraldiak laguntzen baldin bazuen kanpoan egiten genituen ekintzak eta bestela barruan. Ez genekien jendeak nola erantzun ote zuten baina zenbaki polita lortu genuen, boz-pasei gatzetxo.

**Ikasturte honetan, bertzeak bertze, guraso tailerra egiten duzue Lesakako erabilera anitzeko aretoan...** Gurasoek espazio bat eskaintzeko hel-

**«Atentzio Goiztiar programak 6 urte arteko haurrei eskaintzen die zerbitzua, baina askotan sei urte beteta ere jarraipena behar dute. Eskaintzeko aukera dagoen beste programa bat da hori»**

buruarekin abiatu genuen programa hori. Euren dudak galdetzeko, euren beldurrez hitz egiteko, norberaren esperientziak kontatu eta ondokoaren entzuteko espazioa behar zutelako. Orain, hilabetearen behin elkartzen gara, printzipioz, 17:30etik 19:00etara, baina beti luzatzen da. Batzuetan aurretik prestatutako gaiak lantzen ditugu, eta besteetan beraien eskaera oso garbia da. **Zein dira gurasoen kezka nagusiak?** Azken batean, edozein gurasok dituzten kezkek dira: «*zer egingo du nire semeak?*», «*ongi ote dago eskolan?*», «*eta eskolatik ateratzerakoan nora joango da?*», «*zein autonomia maila izango du?*». Duda konkretuagoak dira, baina guraso askok dituztenak. **Informazioa eta aholkularitza zerbitzua ere baduzue. Nola funtzio-**

**natzen du horrek?**

Aurten ere martxan paratuko dugun proiektua da. Hori ere gurasoekin egingo dako bileretatik ateratako ekimena. Hilabetea behin Kontxi Urroz Anfaseko aditua etortzen da informazioa, laguntza eta aholkularitza zerbitzu bat eskaintzera, ezintasunaren inguruan informazioa eta babes emateko.

**Eta epe motzera begira, Anai Ttikien Tailerra. Azaldu...**

Guraso batzuek ezintasuna duten haurren senideekin nola jokatu behar duten ondo ez dakitelako kezka azaldu zuten. Kalean anaiaren ezintasunaren ondorioz burlak izaten badituzte, nola defenditu? Hori lantzea da helburua. Taldea osatua dago eta hemendik gutxira martxan jarriko da.

**Egokitzapenerako Gaitasuna, eskuartearen dagoen bertze egitasmoa...**

Atentzio Goiztiar programak 6 urte bitarteko haurrei eskaintzen die zerbitzua, baina askotan sei urte beteta ere jarraipena behar dute. Eskaintzeko aukera dagoen beste programa bat da hori. Ilusio handia dugu proiektu hauek guztiak martxan paratzeko, eta zonaldean honi indarra eman nahi diogu.



ARGAZKIA: LANDER SANTAMARIA

Ezkerretik hasita, Nicolas Gangutia Magnako zuzendari nagusia, Dominique Bamas administrazio kontseiluko lehendakaria eta Jose Antonio Yeregi Magnako industria zuzendaria urtarrilaren 29ko prentsurrekoan.

‘ERABATEKO PORROTA’ IZAN DELA IRITZITA

# Erdizen harrobia egiteko proiektua bertan behera utzi du Magnak

**Magnesitas Navarras S.A. (Magna) enpresak amore eman du. Urteetako ika-miken ondotik, «desastrea eta erabateko porrota» izan dela iritzita, alde batera utzi du Erdizen egin nahi zuen harrobiaren proiektua, «Baztango Udalak ez duelako erabaki argirik adierazi». Komunitatearentzat Interesa duen Tokia (LIC) izaki, Nafarroan zein Bruselan aitzinera egiteko beharrezkoa omen zuen erabaki hori. Baina ez dio inori bota errua. Hala jakinarazi zuten enpresako arduradunek urtarrilaren 29an Iruñean egindako prentsurrekoan. Etsipenezko hitzak erabili zituzten eta baztandarrek ez dutela «erabaki egokia hartu» nabarmendu zuten. 2001ean hasi zituen harrobia egiteko tramiteak Magnak, eta 2007ko otsail aldera aurkeztu zuen harrobiaren proiektua. Aitzitik, egitasmoak hasieratik oposizio handia izan du Baztanen, eta Erdiz Bizirik plataforma tarteko, manifestazio jendetsuak eta sinadura bilketak egin dira. Bortz urte horietan 1,5 milioi euro gastatu omen ditu Magnak proiektuan, baina argi utzi dute ez dutela «minutu bat gehiago, euro bat gehiago, izerdi tanta bat gehiago gastatuko».**

## Gurutze PIKABEA

Magnak Egitik hurbil dagoen harrobi batean ateratzen du magnesita gaur egun eta Zubirin dagoen lantegian lantzen du. Eugiko harrobia, ordea, sei edo zazpi urte barru agortuko dela-eta hasi zen enpresa Baztanen harrobia egiteko tramiteekin. Erdizen aurkitu zuten 15-20 urterako harrobia izan zitekeenarentzako lekua. 2007ko udazkenerako erantzuna eskatua zuen Magnak Baztanen, baina prozesua gehiegi luzatzen ari zela ikusita, azkenean amore eman du. 150 langile ditu enpresak, eta horien etorkizuna «kolokan» dagoelakoan, epe laburrera, arazoari konponbidea eman nahian, bertze meategi ttiki batzuk aztertu dituzte. Erroibar mendialdean, Zilbeti herrian izan liteke horietako bat. «Baina ez dago Artesiagakoa bezalako magnesitarik, ez kalitatean, ez kopuruan», aipatu zuen Jose Antonio

## Mikel SOBRINO *Erdiz Bizirik plataforma*



**Nola hartu duzue albistea?** Pozgarria da. Magnak Erdizen ez minuto bat, ez euro bat, ez izerdi tanta bat gehiago ez duela gastatuko jakiteak aunitz poztu gaitu, eta gure ustez baztandar gehienak ere poztu izanen dira xoko polit eta lasainetako dugun Erdizek dagoen bezala jarraituko baitu. Garaipen ttiki hau ospatzeko martxoaren 1ean besta egingen dugu Elizondon.

**Proiektua behin betiko bukatutzat eman duzue?**

Ez, gure ustez berriro ere saiatuko dira Erdizen dagoen minerala bereganatzen eta erne egon behar dugu. Momentuz proiektua bertan behera gelditzea lortu bada, baztan-

dar guztiak geldirik egon ez garelako da. Geldirik gelditu bagina, gargero Erdiz zultzen hasiak ziren.

**Alderdien jokabideari buruz zer erranen zenuke?**

Bi gauza: batetik, gauzak isilpean ez direla egin behar. Bertetik, urriaren 1eko Baztar Nagusian NaBaik erabakia Ingurumen Departamentuaren esku uztea proposatu zuen; aurretik herrietan baztarreak egin gabe eta inongo informaziorik eman gabe. Alkate eta herritarrek ez balute inposaketa hori galarazi, lanak hasiak izanen ziren.

**Etorkizunera begira zein asmo dituzue?**

Ez gara geldirik egongo eta

lanean jarraituko dugu. Baztandarren iritzia jakin nahi dugu, ondoren agintariek arduraz jokatu dezaten. Baztango familia aunitzen ekonomian eragiten du Erdizek, eta gauzak hobeki eginez gero, eragin handiagoa izanen duela ziur gaude.

**Zer gertatuko da erreferendumarekin?**

Martxan dagoen arren, seguraski eskaera atzera botako dute Madriletik, proiekturik ez dagoelako. Horregatik baztandarrek eskatutako erabakitze eskubideari beste irtenbide bat bilatu beharko diogu. Herri galdeketa antolatzeke sortu zen komisioan jarraituko dugu, gure ustez funtsezkoa baita Baztanen galdeketa tresna bat prest edukitzea horrelako gaitan herritarren iritzia entzunak izan daitezten.

«Denak geldirik gelditu bagina, gargero Erdiz zultzen hasiak izanen ziren»

Yeregi industria zuzendariak. Hala, urte pare batez luzatu omen lezake te produkzioa. Langile batzordeak ere etorkizunaren «beldur» direla erran du, eta ez dutela ulertzen «industria garrantzitsurik ez duen eskualde bateko Udalak nola ez dion proiektuari babesa eman». Horren harira, Udalak hasieratik defendatu duen parte-hartze prozesura gonbidatuak zirela gogoratu du Baztango NaBaik. Jose M<sup>a</sup> Roig Nafarroako Gobernuako Industria eta Lan kontseilariak ere kritika egin du: «Udalak ez du behar adina baloratu lana eta aberastasuna eratzeko izan duen aukera, eta zehaztasunik eza nabaritu zaio». Enpresak zein Gobernuak elkarrekin hitz egiteko asmoa dute.

Dominique Banas Magnako administrazio kontseiluko lehendakariaren arabera, «harrobia Espainian aurkitzen badugu, litekeena da Zubirikoari eustea. Baina Txinan aurkituta, ez dakit zer gertatuko den. Pena da». Etorkizunerako proiektu garrantzitsurik ez omen dute eskuartean, «Baztanen akordio batera ailegatzea espero genuelako».

Denborarekin berriz itzultzea ez dute baztertu, baina argi dute ez dutela diru gehiago xahutuko Baztanen. Baztango kultur eta kirol taldeei ematen dieten laguntza ere murriztuko omen dute: «Baztandik kanpo geldituta, horietan hainbertze gastatuko ez dugula pentsatzea logikoa da».

## BAZTANGO UDALAREN OHARRA

### Baztango Udalak erran du ez duela «inolako erantzukizunik» gertatutakoan

«Baztango Udaleko Gobernu Baztarrak ukatzen du inolako erantzukizunik baduenik Magnesitas Navarras S.A. enpresak harrobi bat ustiatzeko proiektua bertan behera uztean, ez baitu horri buruzko ebazpenik atera (...). Baztango Udalak uste du garbi eta arduraz jokatu duela prozesu guztian (...). Enpresari adierazi zion proiektua eta ingurumen eraginaren azterlana tramitatu behar zuela Ingurumen Departamentuan, horrek aldeko edo aurkako ingurumen eraginaren adierazpena eman zezan (...). Baina ez du errandakoa egin eta behin eta berriz jo du Baztango Udalera proiektuaren alde jar zedin, jarraitzeko bidea ez izanik hori.

Proiektuak Baztanen piztu duen eztabaida kontuan izanik, erabakia 15 baztarrei kontsultatu behar zitzaie, lehenago informazioa eman ez zutelako (...). Hasieran enpresak onartu egin zuen planteamendu hori baina gero ukatu. EAE-ANVren jarrerak ere ez du batera lagundu (...) proiektuari buruzko informazioa eta eztabaida kanpainan, ez baitzuen onartu. Eta kanpaina hori beharrezkoa zen herritarrek eta gizarte-ko eragileek (...) informazio guztia izan

eta haien iritzia adierazi, interesak defendatu eta erabakietan parte har zezaten. Hori ezinezkoa da, iritzia izateko informazio aski ez badago. Aipatutakoa egin beharrean, Espainiako lege batera jo dute (...) herri kontsulta egiteko. EAEk eta ekimen hori lagundu duten bertz alkatetik ez zuten kontuan hartu Baztanek badiuela bere baliabide demokratikoak horrelako aferak konpontzeko.

Gobernu Baztarrak Magnari adierazten dio ez duela (...) behar den prozedura segitu, hau da, Ingurumen Departamentuak ingurumen eraginaren azterlana buruzko irizpena eman eta, (...) ondoren, harrobia ustiatzeko lizentzia eskatzea Udalari. Horrela eginez, Udalak zuzenbidezkoa dena erabakiko du, ekimenaren alde onak eta txarrak baloratu ondoren, herri-kontsulta batean baztandarrok bozkatzeko dugararen arabera».

Industria kontseilariak errandakoari erantzunez, Udalaren jokabidea «garbia, arduratsua eta irekia» izan dela nabarmendu du NaBaik, eta UPNri leporatu dio «interesak» tarteko «ez ikusia egin» eta «azpitik ibili» izana. Gaineratu du, «UPNk bazuela aukera, proiektuari dion babesa lehen ere adierazteko».

## ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.net  
info@ttipi.net

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senperoko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

### 2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jasotzen du



Aldizkari honek Eusko  
Jaurilaritzako Kultura Sailaren  
laguntza jasotzen du

## ● IRAKURLEAK MINTZO ●

### Oinarrizko eskubideak

Gaur egun lurralde handietan gutxiengo diren herri indigenen kontrako politika basatiak nagusi dira munduan. Herri hauen kultura eta hizkuntzen aurka egiten dutenak. Honen ondorio zuzena da egunez egun ematen den hizkuntzen eta kulturen galera. Gure herrian ere, holakoak bizi ditugu. Politika hauen eredu lege antiterrorista edota estatu espainiarrak erabiltzen dituen metodoak dira. Honen harira aipatu beharra dago orain dela gutxi gure kide izandakoek, Igor Portu eta Mattin Sarasolak, jasan-dakoak. Bertze euskal herritar anitzek bezala ere espainiar estatuaren politika basatiak (lege antiterrorista, torturak eta abar) pairatu dituzte. Eta ez hori bakarrik, beraien senide eta lagunek dis-pertsioak dakartzan on-dorio guztiak ere jasan beharko ditugu.

Euskal Herrian Euskaraz hizkuntza eskubi-deen alde lan egiten duen herri mugimendua da. Hizkuntza eskubideak giza eskubideen zati diren heinean eta herri mugimenduen zati direnek haien oinarrizko eskubi-deak bermatuta ez di-tuztela ikusirik, Euskal Herriak Euskaraz-ek ere honen aurrean zerbait errateko baduela irudi-tzen zaigu. Euskal herri-tarron giza eskubideak bermatzea eta euskal presoentzako tratu dui-na beharrezkoa da, noiz-

bait giza eskubideetan eta berdintasunean oi-narritutako estatu demo-kratiko batean bizi nahi badugu.

Era berdinean, EHE nazio eztabaida guneko partaide eta Oinarrizko hitzarmen demokratiko-aren sinatzaile izanik, ezin ditzake onartu inora ez garamatzaten neurri hauek. Neurri zapaltzai-le hauek salatzea be-harturik gaude hartutako konpromisoak bete eta benetako konponbide bat lortzeko.

Hau guztiagatik, eus-kaldun guztion oinarrizko eskubideak errespetatuak izan arte, euskara eta Eus-kal Herriaren alde lane-an jarraituko dugu!

**Lesakako Euskal Herrian Euskaraz**

**Xanti Begiristain Iruñea**

### Eliza atzerakoa

Ilbeltzaren 31n Es-painiako Eliza ofizial eta atzerakoiaren ordezkari batek eskatu die boto emaileei ez bozkatzeko ETA erakunde armatua-rekin negoziatzeko prest dauden alderdi politikoei, gay eta lesbianak el-karrekin ezkondu ahal izateko Legea onartu zu-ten alderdiei, eta abar. Oso ongi, ba. Horiek ho-rra, herritar xeheok ere izanen dugu, ba, esku-bidea gure eskaerak eta proposamenak egiteko.

Nik, esate baterako, uste dut gizarte honetan jende asko dagoela, pen-tsatzan duena Elizan ba-dagoela zati bat aurre-

rakoaia, plurala eta ideia irekiak dituena; segur as-ki, gutxiengoa izanen da. Hara, ba, nik pertsona fe-dedunei esanen nieke, nahi baldin badute, Eliza aurrerakoi, ireki, zabal, plural eta ezkertiarri ka-su egiteko, sinesteko, la-guntzeko, eta abar. Bai-na, mesedez, beste Eli-za atzerakoi, kontserba-dore, erreakzionarioa, eta abar den horri ez egite-ko batera jaramonik, pa-so egin diezaiotela, itxi diezazkiotela begiak, be-larriak, poroak eta dena.

Jainkoari esker, jen-de askok jadanik ez du sinisten Eliza atzerakoi, kontserbadore, erreak-zionario, itxi, estu, ta-malgarrri eta negargarri horretan. Hala bedi!

### Izan ala ez izan

Azken aste hauetan Lesakan bizitutakoak go-goeta hau idaztera era-man nau. Maila batean nituen kezkek areagotu zaizkidala erran beharra dut lehenik. Nire kezkek ez dira, Mattin eta Igor bortizki eta koldarki ji-poitu ondorengo eran-tzunaren harira heldu. Ez-ta guttiago ere. Egun haietan Lesakako kale tristeetan, indar zapal-tzaileen aurrean, Lesakak eta orohar eskualde guz-tiak duinki erantzun bai-tzuen.

Kezkak, ondorengo egunetan ikusitakoak iku-sita sortu zaizkit. Egun

haietan Euskal Herriaren zein herritarren eskubi-deen alde jardungenuen guztiok. Horrela gataz-karen sorburuan dauden arrazoiei helduz. (Ez da-go soberan aipatzea, ti-ra-bira batzuk izan geni-tuela udal ordezkari on-artean. Alabaina ez da den-bora gehiegi pasa, or-duan hartutako erabakiak alde batera utzi eta erra-litate gordinaren aurre-an, batzuk ostrukarena egiteko. Bertzela nola ulertu, eskualdeko hain-bat torturatuek deitutako manifestazio batean ANVkoak salbu, udal or-dezkaririk ez egotea? Ez ahal dira PNV, ONIN, EA giza eskubideen defen-tsan lehen lerroan ego-ten diren horietakoak? Edo agian, hitzordua ahantzi izanen zitzaie-n, preso eta iheslarien en-karteladarena bezala? Edota momentuaren ara-bera, eta guztiak ongi gelditzeko xedez mugit-zen diren horietakoak ote dira? Nork daki. Niri kezka eta mesfidantza-rekin batera amorrazioa bertzerik ez didate sor-tzen.

Gure herriak egun haietan bezala gaur, eran-tzukizun politikoa dugu-noi arduraz jokatzeko es-katzen digu. Tamalez, es-kaera horretatik hagitz urruti daude, Euskal Her-riak egun bizi duen sal-buespen egoeraren aurre-an etxean gelditzen di-ren ordezkari poli-tikoak. Gainera, beraien arduragabekeria agerian gelditu ez dadin edo, herritarrak beraien ere-dua jarraitzea gonbida-tzen dituzte behin eta be-

rriz. Eredu horren ezau-garri nagusiak, «goitik» datozen gehiegikeri guztien aurrean isiltasuna eta deus gertatu ez balitz bezala jarraitzea dira; egiten dutena gaizki dagoela jakinda ere, aginduak zintzo bete. Berdin dio herritarrak bozkatzen dutena errespeta-tu behar ez bada ere. Denak balio du.

Denak balio duen horretan, ez dago mugarik. Beraien kortijoak baillitza dabitza han eta hemen.

Hemen, Lesakan, jarre-ra horiek aspaldidanik dira ezagunak. Egun EA eta ONIN dira jaun eta jabe, egin eta desegin inorekin kontatu gabe. Adibide batzuk aipatze arren, Lesakak dituen «azken» lurra (landazelaiak) zein egoera juridikoan dauden, zer egin daitekeen edo zer ez daitekeen egin bertan ez dakigu herritarrok. Eta herritarren inguruan informazioa zabaltzeko eskaerei entzungor egiten dabilta.

Diru publikoa hautes-tsientzako mugikorretan gastatzeko badagoela jakin dugu, baina Euskara Mankomunitateko aurrekontuak onartzeko ez. Erdi Aroko feria zergatik antolatu, nola antolatu eta zertarako antolatu behar den ez zaio inortxori galdetu. ONIN eta EAK gainera, herriak eman ez dizkien bi zinegotziz baliatzen ari dira, egin eta desegiteko. Hau ezagututa, ausartzen al da norbait honi guztiari demokrazia deitzen? Zer zilegitasun dute alderdi hauek demokraziaren eta herriaren izenean solasteko?

Udalen funtzio nagusiak herritarren interesak

bermatzea izan beharko luke baina hori errealitate-tik urruti dago eta emeki-emeki kudeaketa eredu hauetan autoritarismoa gailentzen ari da.

Jakinen duzuen bezala, NaBai ordezkaten duten alderdikoak dira guztiak. NaBai azken boladan, hitzez baino ekintzez eza-gutzea egokitu zaigu: AH-Tren (abiadura haundiko tren) proiektuaren alde, Erdizen harrobia egitearen alde, espainiar armada ber-tze lurraldeak okupatzearen alde eta Espainiako se-gurtasun indarrei babes guztia ematearen alde agertu da. Mattin eta Igor txikitzeraino jipoitu eta es-petxera eraman zituen ope-razioaz poztu ere, egin dira. Ikusi nahi duenak ba-du zer ikusi eta zer ez lka-si.

Hauxe da dagoena. Eta hurrengo martxoaren 9ko hauteskundeetan egonen dena. Batetik, gure herria zapalduta, zigortuta eta jipoituta mantendu nahi du-tenen aukera (UPN/PSN): espainolak eta punto. Ber-tzetik, espainolek uzten die-tenaren onarpena eta nos-ki, ahal bada kudeaketa (NaBai-PNV): erregiona-lismoa (?) burujabetza kon-partitua (?). Eta azkenik, gure herriaren biziraupe-nerako berme bakarra (ez-ker abertzalea- ANV): in-dependentsia. Horrekin ba-tera, gatazka politikoa gain-ditzeko proposamena egin duen bakarra ezker aber-tzalea izan da: baldintza demokratikoen gainean eraikitako autonomiarena hain xuxen. Laburbilduz: Euskal Herriaren eskubi-deen aitortza edo zapal-kuntza inposatzailea; izan

ala ez izan.

Herri zahar honek, su-frimenduaz zerbait bada-ki. Euskal Herriko historian hitz horrekin orrialde gehie-gi idatzi dira. Urtarrilaren hasieran, kale bazterretan ginenok, etxe zokoa au-keratu ez genuenok, ber-tzeak bertze, sufrimendua eta ezinegona topatu ge-nituen. Hala ere, maitasun haundia igartzen zen ixu-ri ziren malko haietan. He-rriak ez du egindako mina ahazten, ezta ahaztuko ere. Herriak ez ditu bere defentsan dabilzaten la-gunak ahazten. Maite zai-tuztegu lagunak!

Orain inoiz baino gehia-gokonpromisoaren garaia da. Ez dezagun berriz es-tropozu egin eta akatsak errepikatu. Gure herriak konponbidea behar du eta jendartearen babesa duen proposamena ere badau-kagu. Egin dezagun inda-rra bide horretan eta guz-tiok irabaziko dugu. He-rriak irabazi behar du. Era-baki dezagun: izan ala ez izan.

**Iban Maia Ormazabal  
Lesakako ANVko  
hautetsia**

## Goizuetako Gazte Asanbladari

Azkeneko egun haue-tan egin dituzuen idatziei erantzun nahi diet. Saiatu naiz idatziak Gazte Asan-bladaren izenean idatzi di-tuztenekin harremanetan jartzen baina ez dut lortu, nonbait inork ez daki nork idatzi dituen. Kurioa be-netan. Ba, zuei zuzentzen

natzaizue.

2003–2007 urteen ar-tean Goizuetako Udalean hainbat gauza egin direla begi bistan dago, ikusi nahi duenarentzat.

Beste batzuk bideratu edo proiektatu ere egin zi-ren. Hoietako bat Goizue-tako Kultur Etxea da. Be-re egunean proiektua egi-teko Udalak 15.000 euro-ko dirulaguntza jaso zuen Nafarroako Gobernutik. Beraz, proiektua aurkez-tu genuen eta inork uste ez zuena, hau ere, onar-tu egin ziguten. Egun, proiektu honen exekuzio planak bideratu behar di-ra eta gobernutik eraiku-tzaren %50 finantzatzeko dirua jaso dezakegu, kon-tutan izan behar delarik 800 eta gutxi biztanle di-tuen herri batentzat zer su-posatuko lukeen diru ko-puru honek.

Orain Udalean dauden alkate eta zinegotzietan pau-so hau aurrera eraman edo bertan bera utzi erabaki-tzea dagokie. Lehengo Udalak ez zuen eskaera luzatu eta diru laguntza ja-sotzea beste akatsik egin.

Goizuetako Gaztetxea ez da itxi, ez eta kanpora inor a teratzeko eskatu ere. Gaztetxe bat herrian be-har den leku bat delako. Goizutako Udalak baditu hainbat etxe eta lokal es-kaera horiek denak ase-tzeko. Gaur egun Gazte-txea dagoen lekalean ume, gazte, zahar, hau da, he-rritar guztientzat zerbitzua emango duen eraikuntza bat prestatzea besterik ez da aurkeztu.

**Ez zela Gaztetxe-ko-kin hitz egin?** Ez, ez zen egin. Beste hainbat herri-tar eta erakunderekin egin

ez zen bezala.

**Zergatik?** Zuek ere eremu horretan sartzen zintuztegelako. Gauzatu-ta ez zegoen proiektu bat saltzeko asmorik ez ge-nuelako. Proiektua gau-zatzeko azken eguna era-bili genuelako (hau zuek ere badakizue).

Nire galdera da: orain Udalean dauden alkate eta zinegotzietan eskerrak emateaz gain, informazioa beraien eskutik jaso omen duzutelako, Kultur Etxeare-kin zer egin, Gaztetxeare-kin zer egin, gazteak non bildu adostu al duzue? Itxu-rra denez, hitz egin omen duzue beraiekin. Orduan, zein da idatzi hauen hel-burua? Azken hitza beraie-na da, guk egin beharre-koa egina dugu. Urte bat betetzear dago gu kanpo-an gaudela eta **ez dugu-lainolako indarrik Udale-ko erabakietan.**

Gure asmoa herria au-rrera doala ikusitea zen bai ekintzetan eta baita instalazio eta teknologi be-rrietan ere. Zuek egin du-zuen idatzian leporatzen duzuen interes falta eta bi-lera ukatu zaizuela, inola ere ez da horrela. Bilera hori jaso duzuelako nahiz eta zinegotzi bat bakarrik egon bertan. Bera baita momentu honetan Udale-an aktibo dagoen perso-na. Herriarengatik dudan interesa inork baino han-diagoa dela baieztatzen dizuet, herrian jaino, hazi eta bizi naizelako.

Atzera beitezek ez to gu-re herria aurrera eramin. Aurrera beitezka da GOI-ZUTAREN etorkizunari beitezka.

**E. Salaberria**

## GIZARTEA

# Herriaren ondareak defendatzearen alde Bera eta Leitzako Udalak

Guztira Nafarroako 75 udalerrri eta kontzejuk sinatu dute horren alde

## ttipi-ttapa

Duela zenbait urte Iruñeko Artzapezpikutzak Nafarroako erlijio tokiak Eliza katolikoaren izenean paratzen hasi zen, ordura bitarte inoren izenean ez zeuden eraikinak. Hura, ordea, eztabaidaren abiapuntua baino ez zen izan. Izan ere, berriki, eraikin erlijiosoak Elizaren izenean paratzearen aurkako plataforma sortu da Nafarroan, hainbat udalerriren ekimenez. Hala, dagoeneko 75 dira Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformarekin bat egin duten Nafarroako udalerrri eta kontzejuak. Horien artean, eskualdeko batzuk daude: Leiza eta Bera. Bi herri horietan erlijio tokiak udalarenak direla aldarrikatzeko tramiak hasi dituzte, eta ekimen hau martxan paratu duen Uharteko Udalaren ekimenarekin bat eginez, ondarearen aldeko mozioa onartu dute. Leitzak lehendabizi Berak beranduago.



ARTXIBOA

**Eraikin erlijiosoak daude eztabaidaren erdian. Argazkian Berako eliza.**

Berako Udalak EAE-ANVren aldeko botoekin onartu zuen mozioa; gainerako alderdiak abstenitu egin ziren. Horren harira, erabilera erlijiosoak duten eraikin eta ondasun publikoak eta egoera berdinean edo antzekoan dauden eraikinak pribatizatzea galaraziko zuela adierazi zuten.

Leitzako Udalak, bere aldetik, EAE-ANVren eta NaBairen aldeko botoekin onartu zuen ondarearen defentsarako mozioa. Xabier Zabalo alkateak bere garaian erran zuenez, «*eliza, apaizaren etxea, ondo-ko baratzea eta ermita, bere izenean paratu ziztuen Elizak*». Hilerria, aldiz, ez.

Bertzalde, aipatu, ondare bat norbaiten izenean paratzen den momentutik hasita, bi urteko epea dagoela, kontrako helegitea jartzeko. Bi urte pasatuta, auzitegiara jo behar da ondare hori berreskuratu nahi baldin bada. Eztabaida bizi-bizi dago eta ikusiko da kontua nora ailegatzeko den.

## FLASH

## Langabeziak nabarmen egin du goiti eskualdean

Iazko abenduko ildoari eutsiz 2008ko ilbeltzean ere nabarmen goiti egin du Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emana duten langabetuen kopuruak. Eskualdean 2007a 598 langabeturekin akautu bazen, urtaril hondarrean 118 gehiago ziren, 716, ia %20 gehiago. Aipatzekoa da, estatu osoan Nafarroa dela urtarilean langabezia gehien igo den komunitate autonomoa, 2.190 gehiagorekin eta Nafarroaren barruan, Doneztebeko bulegoa da, portzentaian bederen, igoerarik handiena somatu duena. Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak eta igoera gehiena somatu dutenak eta lan arloei dagokionez, guzietan igo da langabezia, baina berbitzuen arloa da, diferentziarekin langabetu gehien biltzen dituenak, 474 langabeturekin.

Tel: 948 631 317

**HARRI NATURALA**

Abarritze eta Leizora

Barritzeak	Talantak
Agulak	Urtak
Ona abarritzeak	Balazak
Zulak	Zulak
Irak	Silabak
Plorak	Berakak

Abarritze eta Leizora  
Zalaz abarritze eta Leizora

**ZINTARRIA  
ABARITZEAK  
ZULAK**

Ingo errepidea  
BERA

**BIZIKLETEN**  
SALMENTA ETA KONPONKETA

**WATER-BIKE**

Kanttonberri, 1 • BERA  
948 63 12 18

**Larkilanakak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behe • 948 581 931  
BERA • Eztegarra, 8 behe • 948 625 232



## BERA

### Otsailaren 24an egingen da Salgai-hondarren lehendabiziko feria

Merkatariek stockeko artikuluak prezio onean eskainiko dituzte

#### Amaia eta Ainhoa

Berako Udala, Nafarroako Rural Kutxa eta Nafarroako Gobernua-ren laguntzarekin, Larun-Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteko ki-deek I. Salgai-hondarren feria antolatu dute. Otsailaren 24an, igandea, egingen da eta herriko dendariak stockean dituzten artikuluak prezio ezin hobean salgai jarriko dituzte. Goizeko 10etatik 20:00etara kiroldegian zabalizanen da eta hauek dira parte hartuko duten komertzioak: Agara kirolak, Arturo arropa-mertzeria, Edurne umeen arropa denda, Igone paperdenda, Kalotxa zapata-denda, Artieda lentzeria, Bera informatika, Zela kirolak, Elkar liburu-denda, Martutzak arropa eta bitxidenda, Goya arropa, mertzeria eta ohekoen denda eta Expert Bortzirriak.

#### Otsail bukaeran Patxi Vila berriz lanean

Atsedena hartu ondoren, Patxi Vila denboraldi berriari hasiera emateko prestatzen ari da. 2008ko egutegia nahiko finkatua dauka

eta datorren otsailaren 26an, Valentziako itzuliarekin ofizialki hasiera emanen dio. Lehengo urtean Paris-Nizako etapa batean garaipena lortu eta sailkapen nagusian bigarren postua lortu ondoren ezagunagoa egin bazen ere, aurtengoan ez du lasterketa honetan parte hartuko. Honen ordez, Tirreno-Adriatikoa egingen du, baita Nazioarteko Kriteriuma lehen aldiz probatu ere. Italiako Giroa prestatzeko, Euskal Herriko Itzulia, Flecha Wallona eta Lieja-Bastogne-Lieja egingo ditu.

#### Artisautza eta eskulan lantegia

Ricardo Baroja Guraso Elkarteak eta Kultur Batzordeak gazte-txoentzako artisautza eta eskulan lantegia antolatu dute. 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua dago eta ikastaroan aurpegi margo-keta, ile apainketa, bitxigintza, hondarrezko artelanak eta globoflexia lantzeko aukera izanen dute. Ikastaroa otsailaren 23an izanen da, larunbatan, Ricardo Baroja ikastetxean 10:00etatik 13:00etara. Izena eman nahi dute-



ARGAZKIAK: GOIZALDE URDANPILLETA

#### Hurrengo urterarte agurtu ditugu inauteriak

Ortzegun Gizenarekin haurrak izan ziren inauteriei hasiera eman zietenak. Larunbatean, aitzinetik kolokan egon arren, kaldereroen kalejira egin zen eta igandean inude eta artzainek herriko itzulia egin zuten. Astelehenean, berriz, mozoro eta gurdien txanda izan zen. Jende aunitzek parte hartu zuen ekitaldietan, eta giro onean joan ziren inauteriak.

nek otsailaren 15a baino lehen Ricardo Barojara joan edo deitu beharko dute.

#### La Miguel Indurain uztailearen 27an

XVII. La Miguel Indurain nazioarteko martxa zikloturista uztailearen 27an egingen da aurtengoan. Club Ciclista Beratarrak lehengo urteko bi ibilbideak mantenduko ditu: 113 kilometrokoa bat eta 186koa bes-

tea. Izena emateko epea oraindik ez dute ireki baina aurreko urtean bezala postaz edo Internet bidez egiteko aukera izanen da. Bezperan irekitzen den bulegoa ere zabalik izanen da.

#### Gitarra entzunaldia

Berako Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolak otsailaren 28rako gitarra entzunaldia antolatu du. Bertako ikasleek 17:30etik aurrera

musika eskolan ikasurtean ikasten ari direna erakutsiko diete hurbiltzen direnei.

#### 'Lau ipuin pinpirin'

Liburutegiak eta Kultur Batzordeak antolatuta, hilaren 29an haurrentzako ipuin kontalaria etorriko da liburutegira. Maite Frankok 4 eta 8 urte bitarteko haurrei *Lau ipuin pinpirin* kontatuko dizkie, 18:00etatik aurrera.

## LESAKA

## Zambrarekin zer egin gogo duen argitzea eskatu dio PNVk Udalari

Herriko Etxeak erosi eta Kultur Etxea egiteko asmoa duela dio Udalaren irteera agiri batek

**Aitor AROTZENA**

EAJ-PNVko udal taldeak Zambrarekiko dituen asmoak argitzeko eskatu dio Udalari, Juan Fermin Mitxelena bozeramaleak sinatutako idatzi baten bitartez. Horren arabera, Udalaren irteera agiri baten bidez jakin dute Herriko Etxeak Zambra erosteko asmoa duela eta Espainiako Iparraldeko Ur-Konfederazioari bertan Kultur Etxea eta bertze zerbitzuak eraiki ahal izateko txostena eskatu diola. Udalak dagoneko Nafarroako Gobernuaren oniritzia duela ere ageri omen da agiri horretan.

Gaia inongo batzordetik pasa ez denez, PNVko udal taldeak idazkariarengana hurbildu behar izan zuen espedientea ikusteko eta «gure harridurarako», espedientean euren ikusitako agiria bakarrik dago, hau da, Ur-Konfederazioari bidalitakoa.

Gauzak honela, hainbat zalantza argitzea eskatu dio PNVk Udalari. Alde batetik, noiz eta no-rekin izan duten Nafarroako

Gobernukoekin bilera hori eta nola ez dagoen bilera horren dokumentaziorik galdegin dute. Nafarroako Gobernuaren baietza hitzez bakarrik edo PNVk ezagutzen ez duen dokumentorik ba ote den ere galdetu dute. Kokapen hori herriko kultur taldeekin kontsultatu duten eta PNV noiz informatzeko asmoa duten ere galdetu dute.

Zalantza hauei Udalak ematen dien erantzunaren zain dago PNV eta, «horren arabera, gure jarrera zein izanen den zehaztuko dugu aitzinera».

### Erretiratuen urteko batzarra


San Fermin erretiratuen elkarteak urteroko batzarra egingen du otsailaren 23an, larunbatarekin, arratsaldeko 6etan. Hamaseigarren batzar honetan, iazko akta irakurri eta, hala erabakitzen bada, onartu ondotik, joan den urteko kontuak eta aurtengo aurrekontua eta egutegia ikusiko dituzte. Ondotik, eskaera eta galderen txanda izanen da.



ARGAZKIAK: GOIZALDE URDANPILLETA

### Giro ederrean joan dira inauteriak aurten ere

Ez da erraza lau eguneko inauteri giroa hiru argazki eta lerrotan laburbiltzea. Larunbat arratseko jende oldearen ondotik, igande arratsean Zakozarrek ohiko ibilbidea egin zuten. Urtetan zakozar izan eta aurten ateri ezin izan dutenak gogoratu zituzten. Fraindarrek ere bere ibilbideak osatu zituzten astelehen eta asteartean. Karrozen desfilean, azken urteetan baino gutxiago atera ziren. Jendetsuena, ikastolak plazaratu zuen Goazen hondartzara izan zen.



## ETXALAR

# Giro epelean joan dira aurtengo inauteriak

Euskaltzaindiak hainbat liburuxka atera ditu, nahi dutenek hartzeko

### Joseba eta Nerea

Herriko ttikienak izan ziren inauteriak hasi zituztenak. Urtarrilaren 31n, Ortzegun Gizena, goizean goizetik etxez etxe puskak biltzen ibili ziren, batzuk herrian, bertzeak baserrietan, saskia ongi bete arte. Arratsaldean, eguraldi ederraren laguntzarekin, antzerkiak eskaini zituzten herri osoan barna. Eguna akabatzeko, Guraso Elkarteak berendua eman zieten guztiei.

### HAUNDIEN INAUTERIAK

Otsailaren 4an, astelehena, hasi ziren Haundien Inauteriak. Goizean, 8:30ean, 60 bat gazte bildu ziren Elutsan, ongi gosalduta eta indarrak hartzera, eguna irauan ahal izateko. Beti bezala, bi taldetan banatu ziren, goiko eta beheko auzoetara *inaute-inaute* eskean joateko. Eguraldi txarra zenez, traktoretan egin zuten ibilbidea. Goiko baserrietan ibili zirenek Usategiatarako txabolan bazkaldu zuten, eta beheko baserrietakoek Anttonion. Arratsaldean baserrietako itzuliarekin segitu zuten, ilunabar aldera arte. Aurreko berrikuntza gisa, afa-

riaren ordez, pintxo-jatea izan zen Elutsan.

### ORGA DESFILEA ETA MOZORROAK

Egun handian, asteartean, hainbat orga ikusi ahal izan ziren plaza inguruan. Bertzeak bertze, diktadura garaiko eskola, Ekialde hurbiletik etorritako morrak, kartzelatik ihes egin dako presoak eta poliziak gibeletik atxilotzeko intentzioarekin, Erdi Aroko gaztelu bat beraien zaldun eta printzesekin, Holliwoodeko izarrak, ehizturiak guardia zibila atzetik zutela eta hainbat eta hainbat mozorrok giro ederra paratu zuten geroz eta indar handiagoa hartzen ari den orgen desfilean. Herriari buelta eman eta gero koadrila gehienek bazkariak izan zituzten eta arratsaldean, bigarren urtez, gazteentzako joakoak izan ziren frontoian. Aski gustura ibili ziren parte hartu zuten guztiak, baita ikustera eta animatzera hurbildu zirenak ere.

### DOZENAKA KINTO-BAZKARI

Azken urteetako mar-txa segituz, sekulako giroa izan zen kinto-bes-



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

**Etxalarko nazioarteko lehen zinemaldia irudikatu zuten herriko neska gazteek inauterietako asteartean.**



ARGAZKIA: AINHOA BERRUETA

### Mendi irteerak igandetan

Altxata Kultur Elkartearen ekimenez, eta Periko Berrueta eta Joxe Mari Arburuak antolatuta, hainbat mendi irteera egin dira hilabete honetan. 30 lagun inguru elkartu dira, haur, gazte nahiz heldu, herri inguruko mendietan barna ibiltzeko. Argazkia Sunbillako inauterietara joan zirenekoa da.

ten igandean. Adin guztietako 100 lagunetik goiti bildu ziren bazkariaren aitzakian, giro onean jan, edan, eta besta egiteko. Arratsean berandu arte luzatu zen besta bildutako gehienentzat.

### Euskaltzaindiaren liburuxkak

Joan den urteko Aste Santuan Euskaltzaindiak bilkura egin zuen Etxalarren. Egun hartan landutako gaiekin eta egindako azterketekin li-

buruxka batzuk argitaratu dituzte. Kultur Etxean eskuragarri dago Pello Apeztekeak eta Patxi Iñigok aurkeztu zituzten bi lanak biltzen dituen liburua. Interesatuak debalde hartzen ahalko du.

**carohe**  
gozategia okindagia  
C/ de Estigarza 25 baxo LESAKA 63 08 99  
30000 berri@carohe.net www.carohe.net

**XATURETXEA**  
ZAZPI  
JATETXEA  
T. 948 637 260 - LESAKA

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Altxata, 17 - BERA


## ARANTZA

# Mozorro Besta antolatu dute Mozorro Zuriek otsailaren 23rako

Ilunabarrean herri kirol saioa egingen da eta ondotik bertso afaria Irazu eta Maiarekin

## Nerea ALTZURI

Badira urte batzuk ia urtero antolatzen dela Mozorro Besta. Inauterietan protagonista eta antolatzailerak diren Mozorro Zuriek lotzen dute eguneko egitaraua. Ederki pasatu ziren inauteriak, balorazio hagitz positiboa egin zuten gazteek eta horrek ere animatuta, otsailaren 23rako ospakizuna prestatu dute. Egia erran ilunabar partean hasiko da besta. Meza ondoren herri kirol saioa egingen da frontoian. Proba konbinatuak jokatu dira baserritarren eta herritarren artean eta ondotik, afaria izanen da inauterietan azken urteetan hutsik egiten ez duten bi bertsoariekin, Jexux Mari Irazu eta Jon Maiarekin Aterpen. Ondotik, Agerralde musikaria arduratuko da arratsari segida emateaz, Herriko Etxeko gorapean egingen den dantzaldian. Honela emanen zaio bukaera mozorroren ospakizunari.



ARGAZKIA: G.PIKABEA

### Frontoia estaltzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak Kirol institutuaren bitartez, pasa den urtean tokiko zenbait entitate eta elkarte diruz lagundu zituen. Ia bederatzita milioi euro eman zituen kirol instalazioak eraiki, haunditu edo moldatzeko. Guztira 38 proiektu lagundu zituen, banaz bertzeko gastuaren lautik bat ordainduz. Arantzako Udalak ere jaso du laguntza horren zati bat, zehazki, 12.241 euroko dirulaguntza jaso du frontoi estaliaren itxidurarako lanak aitzinera eramateko.

### Udal langilea hautatzeko probak

Aitzineko alean aipatu genizuen, bortz lagunek eman zutela udal langile izateko deialdian

izena. Zehazki, bi arantzatar, igantziar bat, etxalartar bat eta lesakar bat dira deialdian izena emandakoak. Hautatze probak urtarillaren hondarrean hastekoak zi-

ren, baina azkenean, gibelerratu egin dira. Hala, aste honetan hastekoak ziren langilea aukeratzeko azterketak egingen. Langileak, bertzeak bertze, herriko

hainbat zerbitzuren mantentze lanak eta kontrola egin beharko litzuke, eta horrekin batera, Udalaren bandoak eta agiriak banatu.

### Ludoteka zerbitzua

Herrian ludoteka zerbitzua eskaintzen da goizez. Halere jakina da, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ludoteka egitasmoa abian paratu zutela irailean arratsaldetan. Haurrek beren denbora librean gozatuz ikasteko modu bat da. Herriko neska mutikoei parte hartu zuten, eta arrakasta izan zuen arratsaldeko ludoteka zerbitzuak. Urte hasieratik hiru eta zortzi urte bitarteko bederatzita haur daude astearte eta ortziraleko arratsaldetan, 16:00etatik 17:30era. Julen Zelaieta eta Maitetxu Goia hezitzaileak ari dira lanean.

**bortzirUDI**  
bortzirudi@telefonos.net

KARTELAK · KAMISETAK · BISERRAK · TUISATRIAK (Nahi duzun neurri - drainazorekin)  
FOTOKOPIA DIGITALAK · KOLURIBATIAK · TIRUPA BILTZETAN · PLANOAK  
ENKUIADERNAZIOAK · PLASTIKAZIOAK · PEPEPTEGIA · BULGO MATERIALA  
DISEÑO GRAFICOA · LOGOTIPOAK · ERROTULAZIOAK · IMPRENTA

Estrezoa, 26 Eskaineko Behea D - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

Tel: 948 634 179

**ARANTZA**

**ATERPE**  
ALBERGIA

ALBERGIA · JATETXEA

**PERSIANAS** **TOLDOS BAZTAN**

**TOLDOAK** salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa  
**MOSKITERAK-PERTSIANAK** motorizatuak-venecianak  
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

Tel-Fax: 948 631 003  
Bidasoa, 66 behea - BERA

## BERTSOLARITZA

### Abian da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren 37. edizioa

Lehen finalurrekoa Txantrean jokatu da larunbat honetan

#### ttiipi-ttapa

Abian da aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketaren edizioa ere. 37. edizioa da hau eta otsailean eta martxoan jokatu da. Urtero egiten den txapelketa da Nafarroakoa eta, norgehiagokaz harata go, bertsolaritzaren, eta oro har euskal kulturaren, sustapena du helburu. Urteak joan, urteak etorri Nafarroan euskal kulturaren erreferentzia nagusietakoa bihurtu da Txapelketa.

2008ko edizio honetan 25 bertsolari ari dira parte hartzen, horietatik gehienak gazteak..

Aurten azken lau urteetako txapelduna izan den Xabier Silveirak ez du parte hartuko Txapelketan; hortaz, txapeldun berria izanen da. Parte-hartzaileen artean Bittor Elizagoienek bakarrik daki zer den Nafarroako txapelajantzea, 1994 eta 1999an izan zen txapeldun arraiotzarra.

Txapelketak eskualdean zabaldu zituen atak. Bi kanporaketa jokatu ziren, Leitzan eta Iturenen, otsailaren 8 eta 9an, hurrenez hurren. Leitzan Diego Riaño, Juan Mari Lopez, Iker Iriarte, Ekaitz Astiz, Aimar Karrika eta Iñaki Aleman aritu ziren eta Iturenen, Alazne Untxalo, Iker Gorosterrazu, Ander Fuentes, Xabier Terreros, Garazi Taberna eta Xabier Legarreta. Bi saio hauetatik



ARTXIBOA

Parte hartzaileen artean Bittor Elizagoienek bakarrik daki zer den txapela jantzea. Beraz, aurtengo bertsolari berri baten esku gelditu liteke txapela.

bortz bertsolari pasatzekoak ziren finalurrekoetara, kanporaketa bakoitzeko onena eta kanporaketetan puntuaziorik onena lortu duten berte hirurak. Baina lerro hauek idazterakoan ez genuen horren inguruko berririk.

Horren ondotik, hiru finalurreko jokatu dira: Txantrean larunbat honetan, otsailak 16, Lekunberrin otsailaren 23an eta Beran martxoaren 1ean. Finalurrekoetarako zuzenean hamahiru bertsolari dau-

de sailkatuak, 2007ko Txapelketako onenak.

Txantrean Erika Lagoma, Julen Zelaieta, Bittor Elizagoien, Oier Lakuntza eta kanporaketa gaudituko duten bi bertsolari ariko dira; Lekunberrin Iñigo Olaetxea, Joxe Juan Zubietak *Etxabe*, Julio Soto, Oskar Estanga, Aritz Saraguetak eta kanporaketako berte bertsolari bat lehiatuko dira eta Beran, Jon Barberena, Miguel Mari Elozegi, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe eta kanporaketako bi

bertsolari. Finalurrekoetan, beraz, 18 bertsolari izanen dira, horietatik soilik zortzi pasako dira Elizondoko finalera: saio bakoitzeko irabazlea eta hiru finalurrekoetako puntuazioaren arabera, bortz onenak.

Final nagusia martxoaren 15ean jokatu da, Elizondoko Lurdantzalekuan. Txapelketaren xehetasun guztiak eta informazio eguneratua [www.nafarroakotxapelketa.com](http://www.nafarroakotxapelketa.com) helbidean izanen da.

# FERIA DEL SALDO

## SALGAI-HONDARREN FERIA

2008  
OTSAILAK DOMINGO 24 IGANDEA DE FEBRERO

10 h. → 20 h. **BERA**

KIROLDEGIA - POLIDEPORTIVO



**organizadores / antolazzaileak**

AGARA KIBLAK  
ARTURO ANJOA-BERTZENA  
EDURNE UÑEN ANJOA

**colaboradores laguntzaileak**

ZELA KIBLAK  
ELKAR LEBURDENA  
MARTUTZAR ANJOA-BITSIAN  
GOYA ANJOA-KORTXAN-BERTZENA  
EXPERT BORTZIRIAK

**colaboradores laguntzaileak**

CAJA RURAL DE NAUBERA  
RESERVAZIOA BERRA-ARTZA





## SUNBILLA

## Sukaldaritza ikastaroak izanen dira berriro martxotik aitzinera

Igandean mendi ateraldia egingen da Peña Alba eta Arrikulunkara

### Jaione OTXANDORENA

Urtarrilaren hasieran bukatu zen Sunbillako Udalak, Ulibeltza Elkar-teak eta Donamariako Benta jatetxeak elkar-lanean antolatutako sukaldaritza ikastaroa. Haulere, jendea gustora zegoela eta, ikastaroa berriro egitea erabaki zuten. Honela, datorren martxoaren 6an berriro ere emanen zaio hasiera ikastaroari.

### Mendi ateraldiak

Igandean, hilak 17, Ulibeltzak Mendi Taldeak ateraldia egingen du Peña Alba eta Arrikulunka mendietara. Irteera 7:30ean egingen da Itturburu ostatutik. Ateraldian izena eman nahi duenak Bidal Ibarrarari erran diezaiola.

### 3.000 lagun inauterietako desfilean

Giro ezin hobean igaro ziren aurtengo inauterietan ere. Ostiraleko gazteen gosariarekin eman zitzaion hasiera eta igande arratserarte ez zen aspertzeko aukerarik izan gure herrian. Gazteak eskean zeuden bitartean, ortziral arratsaldean haurrak mozorroturik joan ziren

Ulibeltzak Elkartera. Txokolatea hartu ondok Agerralde soinulariarekin dantzan ibili ziren, lehenik elkartean eta ilunabarrean udal-txeko arkupeetan. Gauean, urtero bezala, emakumeen afaria izan zen Ulibeltzak elkartean. Aurtengoan 104 emakume bildu ziren, guztiak mozorrotuak. Egun horretan emakume gehienak koadrilaka mozorratzen dira, eta hala, hippiak, hallowinoko pertsonaia bel-durgarriak, pitufoak, pinotxoak, heineken zerbezaz mozorrotutako koadrila eta beste hainbat ikusi ahal izan ginituen. Aipatu behar da, heinekenez mozorrotutako koadrilak afalondoren zozketa bat egin zuela guztien ustekaberako. Ondoren mariatxi talde baten emaldia izan zen, eta hau bukatutakoan Agerralde hasi zen.

Larunbatean gazteak herrian barna ibili ziren eskean eta haurrek ere beren lekua izan zuten, Ulibeltzak elkartean berriro ere dantzaldia izan baitzuten.

Igandean, 11:30 aldera hasi zen karrozen desfilea. Jende ugari



ARGAZKIAK: ALICIA OLAIZOLA, JAIONE OTXANDORENA ETA AITOR AROTZENA

**Ikusten denez ez zen ez mozorrorik ez umorerik ere falta izan inauterietan.**

etorri zen karrozak ikustera, Foru Poliziak errandakoaren arabera, 3.000 lagun gutti gorabehera. Urtero ateratzen diren hiru karrozez gain, beste 10 koadrilek aurreko asteetan egindako lana erakutsi zuten herriko karriketan bar-

na. 14:30 inguruan bukatu zen desfilea Fondako ostatuaren ondoan.

### INAUTERIETAKO ZOZKETA

Inauterietan egin zen zozketan, zerriaren txartela agertu ez denez, zozketa berriro egin da. Hauek dira zenbakiak:

5374; 1332; 2026. Lehen zenbakia otsailaren 12rako ateria ez bazen, bigarren zenbakira pasatzekoa zen eta honek bertze zazpi eguneko iraupena izango du. Hau ere ateratzen ez bada, hirugarren zenbakira pasatuko da. Zorte on!!!

**ttipi**  
**ttapa**  
☎ (0034) 948 635458

Etxeko Ardi Gazta  
**LIZUN**  
GAZTANDEGIA  
Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

**Belarra**  
jatetxea  
948 450 306  
Ameztia karrika  
DONEZTEBE

## ITUREN

### Maika Ariztegi lasterkaria hamairugarren sailkatu da Altsasuko krosean

Bertzalde, 2008ko zerga tasak onetsi dituzte

#### Arkaitz MINDEGIA

Otsailaren 3an jokatu zen Altsasuko Krosean herriko ordezkari bat han izan genuen: Maika Ariztegi. Nafarroako Kross Laburaren baitako zirkuitoa izan zen Altsasun jokaturakoa eta 13. postuan bukatu zuen *Beste Iruña* taldean ari den Maikak.

#### 2008 zerga-tasa

Udalak 2008. urterako zerga-tasak onetsi ditu. Honela gelditu dira:

-Hirilurraren gaineko kontribuzioa: mantentzea katastroko balio berri eta garbien %0,27.

-Landalurraren gaineko kontribuzioa: mantentzea katastroko balio berri eta garbien %0,633.

-Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: obraren benetako kostu osoaren %3 mantentzea (obra gauzatzeko aurrekontua).

-Hirilurren balio igoe-

raren gaineko zergan oraingo indize eta tasak mantentzen dira.

1. Uraren kontsumorako tasa finkatuko da dagokion ordenantza fiskala onesterakoan.

3. Auzolanetik libratzeko ordaindu behar den diru kantitatea mantentzea 2008. urterako: 30 euro ordaindu beharko da auzolan baikoitzeko.

#### Eskolako txangoa

Otsailaren 21ean, 2. eta 3. ziklokoak Donostiara txangoa egingen dute. Goizean aquariuma ezagutzeko aukera izarri dute. Aquariuma itsas inguruneari buruz ikasteko ekimen berritzaile eta dibertigarria da. Eta arratsaldean, berriz, zientziaren kutxagunea bisitatuko dute. Zientziaren kutxagunea zientzi dibulgazioko zentroa da. Zientziari buruz ikasi eta horrekiko sentikortasuna zabaltzeko lekua da.



ARGAZKIAK: AINARA MINDEGIA

**Herriko gaztetxoek hasi zituzten inauteriak**  
Inauteriak pasatu dira dagoeneko eta egia errateko tristura pixka bat ere geratu zaigu barruan. Zazpi egun luze irauz dituzte eta hizketa eta besta nahiko egiteko aukera ere izan dugu. Bertze urteekin konparatuz jende aunitz bildu zen aurten astelehen eta asteartean. Hala ere, bi egun horiek ezagunenak izan arren, gainontzeko egunetan ere elkarteetan haur, gazte zein heldu denak elkarrekin ohiko otorduak eginez giro paregabea ospatu zituzten.

## ARTEKARI TALDEA

**ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA**

<ul style="list-style-type: none"> <li>Langile autonomoak</li> <li>Nekazariak eta mendi langileak</li> <li>Nominak eta Aseguro Sozialak</li> <li>Lan-Kontratutarako laguntzak</li> <li>Enpresa berri ezberdinen sortzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diru-laguntza ezberdinak</li> <li>Kontabilitateak</li> <li>IVA eta IRPF</li> <li>Errenta aitortpenak</li> <li>Elbarritasun eta jubilazio espedienteak</li> <li>Bidegarritasun planak eta aurrekontuak</li> </ul>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

artekari@artekari.com

**LESACA:** Bittorio, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
**BURLATA:** Lo Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

## ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik
- Mantenu rodiloak

**Igantziko bentak**

**948 63 74 11**

## MALERREKA

# Malerrekako arazoak eta erronkak biltzeko foroak hasi dira

Lehen foroan 32 lagun bildu ziren

## ttipi-ttapa

Abian dira dagoeneko Malerrekako Agenda 21aren foroak. Lehen urtarrilaren 22an egin zuten Donezteben eta lurraldea, hirigintza, ingurumena eta ingurumen arloak eta mugikortasuna izan zituzten hizpide. Herri gehienen parte hartzearekin 32 lagun bildu ziren eta atalez atal herrien arazo eta erronkak aztertu zituzten.

**Lurraldea eta hirigintza**ren inguruan, kudeaketan dagoen gabezia eta eskualdearen antolamendu eza azpimarratu zuten. Hala, udalen arteko lankidetzaz ezinbertzekoa zela iritzi zioten. Etxebizitza eskasia eta garestiak izatea ere aipatu zuten, batez ere Babes Ofizialeko Etxebizitzak behar direla. Lur ez urbanizagarrian etxeak egiteko joera kontrolatu behar omen da, baita etxebizitza hutsei irtenbidea bilatu ere. Kirol eta kultur instalazioen falta ere nabaria dela erran zen, eta dagoena Donezteben biltzeko joera dagoela. Interneten banda zabalaren beharra ere nabarmendu zuten.

**Ingurumenaz** aritu zirenean, zenbait men-

di eta erreketan dagoen zikinkeriarri aitzin egin behar zaiola aipatu zuten bildutakoek, eta horrez gain, baliabide naturalak hobeki aprobetxatu behar direla. Herriarrek ondare naturalaren inguruan duten kontzientzia ere eskasoa omen da.

Ura, hondakinak eta energia bezalako **ingurumen arloez** ere mintzatu ziren. Guztietan kudeaketa hobetzearen beharra azpimarratu zuten, eta uraren kasuan, hornidura bermatzeko dagoen beharra, Gaztelun garai jakinetan dagoen eskasia, adibidez.

Azkenik, **mugikortasuna** izan zuten hizpide. Arlo honetan gabezia agerikoa da, garraiobide publikorik ez egoteak autoa hartzera behartzen baititu herritarrak. Horri irtenbidea ematea egokia litzateke, bildutakoek iritzi zuten.

Bigarren bilkura astearte honetan, hilak 12, egitekoa zen, kultura, kirola, euskara, hezkuntza eta gizarte zein osasun zerbitzuez solasteko. Azken foroa otsailaren 28an egingen da. Orduan ekonomiaz eta tokiko eta eskualdeko kudeaketaz arituko dira.



ARGAZKIAK: GOIZALDE URDANPILLETA

## Giro ederrean Doneztebeko inauteriak

Inoiz baino lehenago, baina bukatu da aurtengo mozorro besta. Ortzeguneko poteoarekin hasi eta larunbata bitarte egin ziren inauteriak Donezteben eta giro ederrean joan ziren. Ortziralean baserriz baserri eskean ibili ziren gazteak eta eskolako haurrek mozorro desfilea egin zuten karriketan barna. Larunbateko desfilean era aunitzetako karrozak ikusi ziren.

**txokoberri**  
Aluminioan espezializatuak

- Aroztegi Metalikoak (felhoak, steak, barandak, ...)
- Parket

Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 616 551 924

egoi bardot obregozo arkitektoa  
679649789 elizondo · braulio iñarte 33, 1ºD · 31700  
948250371 inurhea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

**ttipi**  
**ttapa**

☎ (0034) 948 635458



## MALERREKA

### Zubietako udal ordezkariak izendatu ditu Nafarroako Gobernuak

Plenoan erabaki beharko dute zein izanen den hautetsi bakoitzaren kargua

#### ttipi-ttapa

Joan den abendua- ren 9an egin ziren hau- teskunde berezietan zu- bietarreko herria gober- natzea nahiko lukete her- ritarrek aukeratu zituz- ten. Orduan botatuena Fermin Etxekolonea izan zen, baina honek alkate izateko ezezkoa eman, eta bigarren botatuena, Patxiku Mitxelena, proposatu zioten Go- bernuari alkatetzarako. Hori, ordea, plenoan erabakiko dute. Izan ere, Gobernuak herritarrek proposatutako ordezkariak onartu ditu, eta orain plenoari dagokio bakoitzari zein kargu dago- kion erabakitzea. Hauek dira Batzorde Kudea- tzaileko hautetsiak: Fermin Etxekolonea Urri- za, Patxiku Mitxelena Zelaieta, Linoi Elizalde Loiarde, Mikel Telletxea Santesteban, Ines Gere- ka Zelaia, Gorka Fuen- tes Mugika eta Periko Santesteban Loiarde.

#### Beintza-Labaien Partzuergoan

Bertze zenbait herri- ren artean, Beintza-La- baienek Bertizko Par- tzuergo Turistikotik ater- ratzea erabaki zuen 2006ko abenduan. Orain, ordea, Udalak be- rriro sartzea erabaki du. Beraz, lau dira garai ba- tean partzuergotik ate- ra zirenetatik oraindik kanpoan segitzen dute- nak: Bera, Lesaka, Do- neztebe eta Elgorriaga.

#### Jubilatuena ostatua zabalik

Malerrekako Jubila- tuena Elkartearen Donez- tebeko ostatua berriz ire- ki dute. Santa Luzia ka- rrikan duten egoitza Kan- diren esku gelditu da, eta ostatuko zerbitzuaz gain, pintxoak eta menuak ere eskainiko omen ditu. Ju- bilatuak aspaldi zebiltzan lokala zabaldu nahian eta lortu dute. Zahar zein gazte, guztientzat irekia dagoela adierazi dute.



ARGAZKIA ETA TESTUA: LUIS GARDE

**Ukrainako haurrentzako 1.500 kilo arropa eta jostailu Doneztebeko Guraso Elkarteko kide batzuek Kherson Proiektuaren amaiera ona egin zuten. 1.500 kilo arropa eta jostailu bidali dira Ukrainako bi umezurtegitarat, aurreikusitakoa baino aunitzez gehiago. Ea hurrengoetarako guraso gehiago biltzen garen ekitaldietan parte hartzeko!**



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

**Joare soinuan eta giro ederrean inauteriak Zubietan** Iturengo eta Aurtizko joaldunak bezala, Zubietakoek ere ohiko joan etorriekin egin zuten inauterietako ibilbidea. Astelehenarekin, urtarrilak 28, Iturenen bildu baziren, asteartean Iturengo eta Aurtizko joaldunen bisita jaso zuten zubietarrek. 20 bat joaldun atera ziren Zubietan, emakumezkoak zein gizonezkoak.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

## ANZABAL

AGENTZIA

- Zurich Asegurua
- Auta, etxebizitza, istripu eta biotza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Enpresa Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
- Baseri, boida, pisu, etab... salmenta eta alokariak
- Gestoria

Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO  
Tfnua eta Faxes: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

Añorgatik 14  
Tel: 943 372 870  
Fax: 943 372 870  
Fax: 943 365 586  
behetik@behetik.com  
20018 DONOSTIA

## behetik

AULKI JASOTZAILAK

## TURISMOA

# Arrakasta haundia izan dute eskualdeko ordezkariak Madrilgo Fitur turismo azokan

Zugarramurdiko Sorginen Museoa eta Bertiz eta Plazaolako Partzuergo Turistikoak izan dira

## ttipi-ttapa

Mundu mailan sona haundia duen Fitur azoka egin zen urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra Madrilen. Adituek diotenez, turismo arloan munduko bigarren feriarik garrantzitsuena da Fitur eta aurtengoan 170 herrialde eta eskualdetako 13.300 entitate bildu ziren. Tartean eskualdeko ordezkariak ere izan zen.

## ZUGARRAMURDIKO

### MUSEOA ETA AKELARREA

Bertzeak bertze, joan den urteko uztailean irekitako Zugarramurdiko Sorginen Museoa bere lekua izan zuen, aurkezpen eta guzti. Jesus Agerre alkatea, Ainhoa Agirre museoko kudeatzailea eta Fernando Hualde historialaria museoa inguruan mintzatu ziren, museoa turismo eta kultur baliabidea den aldetik. Horrez gain, herritarrek Akelarrea antzeztu zuten eta antzinako be-



ARTXIBOA

Plazaolako Bide Berdearen zati bat da argazkian ageri dena, Leitzatik pasatzen den bidean. Aurten lehen saria lortu du Europako Bide Berdearen lehiaketan, bide berdea berreskuratzeko egin duen lana sarituz.

larrarien oinordeko den edabea, mandragora, ere eskani zuten.

### BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOAK

Bertizko Partzuergo Turistikoak ere ez zuen hutsik egin azokan, eta *Naturan egonaldiak* *Baztan-Bidasoan* egi-

tasmoa merkaturatu zuen. Eskualdea bisitatzeko bostz programa desberdin landu dira ekimen horretan, guztiak osagai berri eta amankomun batekin: taxi-gida. Egitarauak *aurrehistoriarako grina*, *historiarako grina*, *gastro-nomiarako grina*, *ber-*

*derako grina* eta *urera-ko grina* dute izena. Proiektuan parte hartzen duten landetxeetan ostatu hartu, gai hauekin lotura duten toki eta baliabideak bisitatu eta aurkezpena eta azalpena ematen dituen gida baten laguntza izanen dute. Hala, ortziral

arratsetik igande arratsaldera bitarte, bisitariak harat eta honat ibiliko dituen taxi bat izanen dute, aukeratu duten programaren arabera. Dena den, programak konbinatzeko aukera ere badago eta guttienerako parte hartzeko kopurua lau lagunekoa da, gehienez zazpikoa.

## PLAZAOLAKO

### PARTZUERGO TURISTIKOAK

Plazaolako Partzuergo Turistikoak ere bere eskaintza aurkeztu zuen Fiturren, Espainiako Trenbideen Fundazioak antolatu eta koordinatzen duen Bide Berdeen *standaren* barrenean. Aurten, gainera, Bide Berdeen hamabortzgarren urteurrena ospatzen ari dira. Aipatu, Plazaolako Bide Berdeak Europako Bide Berdeen III. Lehiaketako lehendabiziko saria irabazi duela berriki, garapenaren eta turismoaren arloan.

EDARIK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA  
Txotx denboraldia irekia  
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA  
Nabiz auzoa - LEKARIZ  
948 402121 - 626 404317

LINDURRENBORDA  
Nabiz auzoa - LESAKA  
948 637212

Zalain  
jateetxea - hostala

14 logela bainu  
eta TBrekin

Zalain auzoa 1/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

# Loreak eta landareak

Ezkabarte industrialdea, M1  
31194 ARRE (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 196 453  
Faxa: 948 196 351  
basartea@basartea.com  
www.basartea.com



## basartea

Ingurugiro eta basoen proiektu  
eta ikerketak



Ingande eta astelehenak 9:00 - 14:00  
Asteartetik larunbatera 9:00 - 20:00  
Jaizubia Auzoa, 40 • HONDARRIBIA  
Tfnoa: 943 641 710 • www.endanea.com

Zatoz eta pasa momentu eder bat lore eta zuhaitzen artean

### ENDANEA MINTEGIA, INGURUKO LORE MINTEGIRIK EDERRENA

- Fruta-arbolak eta larrosak aldatzeko sasoiak
- Larrosak: 40 kolore, estilo eta usain ezberdinetakoak
- Fruta-arbola txertatuak 4€tan. 60 klase ezberdin (zain hutsean, tiestoetan)
- Sagarrak (jatekoak sagardokoak), udareak, gereziak, muxikak, brinoiak, kiwiak...
- Fruta-arbolak neguan zaintzeko, xomorroen aurkako produktuak

**2x1**  
BAKORTZA  
4€tan

**FRUTA-ARBOLETAN**  
2 hartu eta 1 pagatu  
Zain hutseko landareak  
(Raiz Desnuda)

**3x2** ZIKLAMENAK  
3 hartu eta 2 pagatu

**PENTSAMENDUAK**  
Lehen 5€ orain 3,5€  
10 landareko kaxak



LOREAK ETA LANDAREAK

*Arategiak apartatzen auzoan gabata*

Frain Auzoa • LESAKA • 948 637 826

**BAXERRI**



- Lorategien zainketa
- Mendiko lanak

616 243 530

**Ituzia**  
Lorategiak • jardineria



**HIDROEREINTZA**

kimaketa  
zetaurak  
mantentzeak

**KIMAKETA BEREZIAK**

Zuhaitzak  
árboles



Zuhaitzak  
arbustos

FERMIN HARITORENA LARRALDE  
Regadio karrika, 11  
47100 Billa (Burgos)

466 407 314  
948 631 799

## Landareak ongi kokatzeko aholku orokorrak

- Barreneko landare gehienek ekialdera edo hegoaldera begira dagoen leiho baten ondoan nahiko erraz bizirauten dute, beti ere, eguzkiak zuzenean jota hondatzen ez badira. Zenbaitetan eguzkia zuzenean ailegatzeko bazaie, hostoak berde kolorekoak bihurtzen dira, eta eguzkitik urruntzea ezinbertzekoa da, ordu batzuetan, bai berderen. Leihoen kristalek beroa areagotu egiten dute, eta horrek, hostoak erretzea ere eragin dezake. Halakoetan, gortina beti babes neurri eraginkorra izan daiteke.

- Negu garaian ez da komeni leiho barrenean landareri uztea. Argitasun gehiago hartu arren, gaueko izozteak kaltegarriak izan baitaitezke landarearentzat. Bertzetik, beroa sortzen duten edozein tresnatik urruti mantendu behar dira, berogailua edo tximinitik, erraterako, hostoak berehala hondatzen baitira horrelakoetan.

- Landareak haizea dagoen lekuetan paratzea ere ez da komeni, haizeek hostoak kenduko dizkiotelako. Eta argi gutti dagoen gela batean paratzekotan, argi iturri artifizial bat ere paratzea komeni da. Horrelakoetan, ahal dela, argi fluoreszentea, bero guttiago ematen duelako.

## Edertu lorategia koloreekin jokatuz

Kolorearekin jokatuz, lorategi eder eta osatu bat egiteko aholku batzuk bildu ditugu ondorengo lerro hauetan:

- Kolore urdinarekin kontuz ibili, gaizki erabiliz gero bizitasunik gabekoa gelditu daiteke lorategia.
- Arrosa kolorearen tonu ezberdinak ez nahastu.
- Horiak eta laranja berotasuna ematen dute eta indarra ematen diote lorategiari.
- Kolore gorria da nahasketetarako aukera haundiena ematen duena. Berdearekin, erraterako, kontraste bikaina egiten du.
- Zuriaren leuntasun, gozotasun eta dotoreziak edozein lekua dela ere alaitasuna ematen dio lorategiari.



## Kontuan hartzekoak



Toki eguzkitsua



Toki erdi-itzelean



Toki itzelean



Loratze hilabeteak



Landarearen altuera



Ekain-uzen: 80 cm

### ARROSA

Duten kolore leuna flamenkoen antzekoa da. Loraldian kolorea mantentzen dute. Mozterakoan lore artistiko eta indartsua da, loreontzi batean paratzeko egokia.



Uztail-uzen: 40 cm

### DALIA

Aukera zabala dago koloretan. Barietate hauen infloreszentzia edo lore-elkartea anemona baten antzekoa da. Zimelduta dauden loreak kendu egin behar dira, lore gehiago emateko. Lorategi eta balkoietan paratzeko aproposak dira.



Ekain-uzen: 25 cm

### MAORIA

Fuksia kolorearen bueltan dabil eta lore bikoitzekoa da, edozein lekutan erraz irauten duena: lurrezko loreontzietan, lorategietan edo itzelean dauden lorategietan. Hala ere, aholku bat. Fuksiak loraldian baldin badaude, zimeldutako loreak kendu, baita hazia ere. Hartara, uda guztian loraldian segituko du landareak.



Ekain-uzen

### MARRUBIA

Hauk ere apaingarri gisa erabiliak dira, balkoi batetik zintzilik, terrazan... Lurrezko loreontzietan paratuz irauten dute. Fruituak ekainetik urrira bitarte ematen dituzte.



**Goiko**  
LOREZAINITZA  
lorategi zerbitzuak  
Tel: 948 510 287 - 667 848 832

- Diseinuak
- Ereintzak
- Landatzeak
- Ureztatze sistemak
- Mantenimenduak

**KITZUBI MENDI LAN-ESKERRIZIOAK**  
Tel./Fax: 948 450 504  
Móvil: 659 867 287  
699 461 394  
SUNBILA - NABARRUA

**KIMATZE LANAK • ZERRAKURAK PLANTAZIOAK**

**Carlos Txoperena**  
mendi garbiketak eta landaketak  
**ITXITURAK**

Tel: 948 637 477  
637 466 124  
**LESAKA**

**Ginko**  
LOREZAINITZA  
M. Karmele Tolosa

ANOLKULANTZA • PLANIFIKAZIOA • LUR MUGIKINDUA • LANDARE EGOKIAK BIATZEN  
• ARGIZAN ITXITURAK • BADAKKAK • ITXITURAK • DRENAJEAK  
• PODAK • FRUTA • APAINGARRIAK ETA SETOAK

**JOHN TELLETXEA MAYO**  
NEKAZARITZAKO INGENIARI TEKNIKOA

Bittiria 4, 2. esk • Lesaka • Tel. 948 627 561  
Mugikorra 619 418 683

# Lore-denda

VENTA PEIO

# Landi Flor

Barazkiak • Etxe barneko eta kanpoko loreak  
Fruta-arbolak • Zuhaitzak • Ureztatzeko tresnak  
Hesiak eta itxiturak • Lorategi eta terrazarako  
apaingarriak • Plastikozko eta lurrezko loreontziak

**DENBORALDIKO LANDARETAN  
ESKAINZA BEREZIA**



 **Landi Flor**

Larunbat eta igandetan irekia

DANTXARINEA • 00 (33) 948 599 430

## GOIZUETA

### Nafarroako Gobernuak ez du onartu Kultur Etxearen proiektua

Udalak erabaki zehatzik hartu ez badu ere, gaiarekin aurrera segitu nahi du

**Esteban AROTZENA**

Orain dela egun batzuk jakin denez, Nafarroako Gobernuak Kultur Departamentuak ez du begi onez ikusi Udalak aurkeztutako Kultur Etxearen proiektu berria.

2006ko urtearen bukaeran eraman zuen Udalak Iruñera lehenbiziko proiektua. Honek jasoen hango agintarien oniritzia, baina arazo larri bat zeukan egitasmoak: ez zela herriko arau subsidiarioetara egokitzen. Lurrazpiko solairua aurreikusten zen eraikin berrian, eta esan bezala, horrelako aukerarik ez dute kontenplatu gaur egun indarrean dauden arauak, ezta ondorengo hilabetetan onartuko diren berriek ere. Honen aurrean, lehenbiziko proiektu hura aldatu egin zuen korporazio berriak, baina hau ez da Kultura Departamentuaren gustu-

koa izan, hasieran aipatu dugun bezala.

Ezezkoak ezezko, gai honekin aurrera segitzeko asmotan da Udala. Oraindik ez omen du erabaki zehatzik hartu, baina arau subsidiarioen aldaketa puntualaren aukera aztertzen ari omen dira Herriko Etxean hasierako proiektu hura bideragarria izan dadin.

**GAZTETXEA ERE KEZKATUA**

Gaztetxeak ere publiko egin du gai honek sortzen dion kezka. Kultur Etxea beharrezkoa ikusten dute, baina eraikin horrek gaur egungo gazteen egoitza desgertzea ekarriko lukeen arren, ez omen zien Udalak deus esan proiektua egin zenean, eta hori ez zaie ongi iruditu. Dena den azkeneko hilabeteetan gai honi buruzko bilerak egin omen dituzte Udalarekin.



ARGAZKIAK: MAITANE APEZETXEA

**Inauteri haundi batzuen irudiak**

Ohiko ekitaldiekin eta beti bezain umore onean joan ziren aurtengo inauteriak. Ikusi bertzerik ez dago nolako giroa sortu zen herrian. Goiko argazkia astelehenekoa da, San Fermin Eguna hartu zuten disfrazatzeko.



ARGAZKIA: AINARA NARBARTE

**Gaztetxeko lagunak eski bidaian**

Ilbeltzaren 26an eta 27an Gaztetxeak eski bidaia antolatu zuen Formigalera. Argazkian ateraldian parte hartu zuten lagunak ageri dira, Isin ateparen atarian.

**ttipi**  
tapa

www.ttipi.net  
info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa - 20304 IRUN - Tfnoa 943 623 130

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

## LEITZA

# Aspaldiko partez, Atsaureen etorrera gogoratu dute ihoteek

Asteartean jende andana atera zen Atsaureen Kalejiran

Joseba URKIOLA

Euskal Herriko txoko gehientsuenetan bezala, Leitzan ere agur esan dute 2008ko ihoteek. Aurtengo ekitaldia hitz batekin definitzekotan, hori «berezia» litzateke. Urtero bezala, lau egunetako jaiak izan eta jendetza andana ibili den arren, igande eguerdian eta astearte arratsaldekoak, oso gutxitan errepikatu ahal izango dira.

Ilbeltzaren 27an, igandean, hainbat karroza eta konpartsa ikusteko parada izan genuen. Iaz bezala, aurtengo jai koloretsuetan ere izan da beste kulturekin hartuemanetan jartzeko aukera. Aipagarrien artean, Txinako bikote berezi batzuk, Afrikaiparraldetik etorritako lagun taldea eta Norvegiako bikingoak. Neguko zeru tristan uso bila zebilen ehiztari koadrila, menditik zuzenena jaitsitako baserritarrak, istripuz-istripu ibili ziren bi hankatako autoak eta ezein ezustekoren aurrean herriko txokoak zaindu nahian ibili ziren suhiltzaile brigada umoretsu bat ere Leitzako karriketan ibili ziren.

ASTEARTEA,  
ATSAUREEN EGUNA

Igandeko mozorro festa amaitu eta astelehenean, Gorritaran eta Leitzalarre ingurua kantuz eta uluz alaitu ostean, azken asteetan herritarren artean interes handia piztu zuen ihotetako fenomenoaren txanda iritsi zen: Atsaureak. Urte askoren ondoren, Atsaureen Kalejira berreskuratu zen eta igandean zeuden orotariko mozorroez gaindi, asteartean denak nahikoa berdintsu jantzi eta apaindu ziren. Desberdintasun bakarra, bakoitzak bere burukoari zein soinekoari ezarritako apaingarriak.

Herritar ugari bildu zen, txistulariekin atsauretuta herriari itzulitxo emateko eta une bateguz bederen, Leitzak denboran atzera egin zuela esan daiteke. Urte asko igaro baitira, halako mozorro eta apaingarriek herria azken aldiz ferekatu zutenetik.

**Zuk aukeratu,  
zuk erabaki**

Nafarroako Kutxak abian daukan *Zuk aukeratu, zuk erabaki* pro-



gramaren barrenean hainbat proposamen sartzea erabaki du Leitzako Udalak. Hala nola, Karrape Irratiko azpiegitura moldatzea, Leitzako web orrialdea egitea, kultur materiala lortzea, Leitzalarreko leku berezien kontserbazioa eta udaletxearen fatxada garbitu eta moldatzea.


**Agenda 21eko  
bilkura hilaren  
26an udaletxean**

Aurreko alean aipatu bezala, Leitzaldeko Agenda 21eko foroak egiten hasiak dira dagoeneko. Lehenbizikoa urtarilaren 15ean egin zuten, eta hurrengo otsailaren 26an egingen da, hau ere Leitzako udaletxean. Kultura, kirola, euskara, heziketa, gizarte zein osasun zerbitzuak eta ekonomia eta eskualdeko kudeaketa aztertuko dituzte bigarren saio horretan. Bilkura Herriko Etxean izanenda 19:00etan, eta interesatu guztiei zabalik egonen da.



ARGAZKIAK: JOSEBA URKIOLA

Aurten ere karroza ikusgarriak egin ziren, eta horren lekuko goiko argazkia. Behekoa, berriz, Atsaureen Eguneko irudia da.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Bisitari bereziak ihoteetan**

Aipatu moduan, aurtengo ihotek bereziak izan dira. Parte-hartzeari dagokienean ere, ezohikotasun hori nahikoa nabarmen gertatu da. Leitzarrez eta ingurukoez gain, Ingalaterratik zuzenean etorritako bisitariak ere herrian izan baitira, bederatzi gutzira. Herriko bi familiatako ki-deak dira. Batetik, Mirentxu Elozegi eta bere familia etorri zen. Bestetik, berriz, Andy Wilson azken urte hauetan Leitzan bizi den jatorri ingelesekoaren sendiko boskotea etorri zen.

gaztelu scl  
iturgintza  
kalefakzioa • saneamendua • gasa  
Tfnoa: 948 510 086 • 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA

ttipi  
ttapa  
☎ (0034) 948 635458



## ARESO

### Iragarrita zegoen doako informatika ikastaroa apirilera atzeratzea proposatu du Udalak

Aste hauetan egitekoa zen, baina hiru lagun bakarrik apuntatu dira

**Juana Mari SAIZAR**

Aurreko alean aipatu genizuen, Informatika eta Internet ikastaroa eginen zela otsailaren 4tik 15era Areson, *Hurbildu IKTetar@* izeneko kanpainaren bidez, Cederna Garalur Elkarteak antolatuta. Goizetan egitekoa zen, baina ordutegi txarra zela eta azkenean bertan behera gelditu da otsaila. Hiru lagunek baino ez zuten eman izena, eta horregatik herriarrek arratsaldera pasatzeko eskaera egin zieten Udalari. Honek eskatutakoa Cederna Garalurri planteatu eta honek ez du ezezkorik eman. Ikastaroa unitate ibiltaria denez, eta Na-

farroa osoko hainbat herritan egiten ari dena, apirillean, gainontzeko herrietako itzulia bukatzean Aresora itzul daiteke. Orduan, arratsaldetan, eginen litzateke.

#### Hainbat ohar

Ohi bezala, sutarako egur lotea lortzeko bidea zabalik dago. Behar dutenek udaletxean egin beharko dute eskaera.

Bestalde, arratoientzako pozoia banatzen ari dira udaletxean, eta harat hurbildu beharko da pozoia jasotzeko.

Azkenik, esan, klorometro automatikoa jarri dutela elizaren atzeko ur deposituan, orain arte eskuz egiten baitzen.



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

**Industrialdeko eta ur deposituko lanak aurreratuak**  
Aresoko industrialdea zabaltzeko lanek aurrera segitzen dute, eta oso aurreratuak daudela ere esan liteke. Bestalde, ur depositu berria egiteko lanak ere aurreratuak daude, argazkian ikusten denez.

**edredoi-azal nordikoak**

**albornozak**

**mantelak**

**kuxinak**

**ohe estalkiak**

**maindireak**

**toailak**

**edredoi nordikoak**

1951tik

**Casa Cambra**

lentzeria-etxea



**Merkealdia. Hilabete txuria**

Tafalla, 13 • IRUÑEA

948 230 634

## BAZTAN

# Bertso-paper, ipuin eta gutun lehiaketako sariak banatu ditu Baztandarren Biltzarrak

Piropo lehiaketan lan bakarria aurkeztu zen eta antolakuntzak ez zuen saririk banatu

## ttipi-ttapa

Urtarrilaren 18an banatu zituen Baztandarren Biltzarrak abenduan abiatutako lehiaketako sariak. Batetik, II. bertso paper eta ipuin lehiaketako sariak eman ziren. Eta bertetik, gutun eta piropo lehiaketakoak. Azken bi hauek 18 urtetik goitikoei bideratuak ziren.

Bertso paper lehiaketan 21 lan aurkeztu ziren eta lehen saria Manex Ernetaren *Aste xuria* bertsoek jaso zuten. Bertiz Abentura Parke-rako sarrera eraman zuen; bigarrena Kontxi Aginagaren *Elurra* bertsoek jaso zuten; eta hirugarrena Ainhua Juanikorenaren *Eguberriak* bertsoek.

Ipuin lehiaketan, berriaz, 30 lan aurkeztu ziren. Haur kategorian, Jon Maiordomo eta Unai Elizondoren *Abentura Baztanen* ipuinak jaso zuten lehenbiziko saria. Bertiz Abentura Parke-rako sarrerak eraman



UTZITAKO ARGAZKIA

Sari banaketa egunean, Unai Santxotena, Pablo Letona eta Itsaso Iriarte euren lan saritua jendaurrean irakurtzen.

zituzten; gaztetxoetan, lehenengo aukeratua Maite Elizetxeren *Iluntasunaren beldur* ipuina izan zen; bigarrena Endika Etxenikereren *Ur erroten laisterketa*; hirugarrena Itsaso Iriarte, Pablo Letona eta Unai Santxotenen *Antton mendian galdurik* lana. Laugarren sariari dagokionez, bi ematea erabaki zuen epai-mahaia: Adrien Grivillersi, Aze-

nari lan motz eta arinaren, eta Haizea Meoki eta Itsaso Elizetxeri *Errotako animaliak* ipuinaren.

Eskutitz lehiaketan Jon Barberena izan zen saridun. Bi lagunentzako otordua irabazi zuen. Eta piropo lehiaketari dagokionez, lan bakarria aurkeztu zen eta horregatik, antolakuntzak saririk ez ematea erabaki zuen.

## Kasinoko zuzendaritzarako hauteskundeak

Larunbatean, otsailak 16, ez ohiko hauteskundeak eginen dira Kasinon, eta bertzeak bertze, lehendakari berria izendatuko dute. Hautagaiak larunbateko 19:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira. Lehendakariarekin batera, lehendakariordea, idazkaria, idazkariordea

eta bertze bi kideren izenak aurkeztu beharko dira zerrendan. Bakarria aurkeztzen bada, zuzenean hura pasatuko da zuzendaritzara. 19:00etan hasiko da bilkura, eta 19:30ean bigarren deialdia eginen da.

## Babes Ofizialeko Etxebizitzak

Udalak Baztanen Babes Ofizialeko Etxebizitzak beharrik ote dagoen jakiteko deialdia eginen du. Horretarako, etxebizitza horietan interesatuak daudenen zerrenda zabalduko da merkaturaz aztertzeko, eta bide batez, Baztanen ezinegonaren sortzen ari den kontu bat argitzeko. Azken plenoan Nabai eta UPN alderdien artean eztabaida eragin zuen kontua izan zen Babes Ofizialeko Etxebizitza. Erran dutenez, Baztanen ia ez omen dago etxebizitza babestuak egiteko eskaririk.

**Pierresenea**  
OSTATU · JATETXEA  
Jaki tipikoak · Etxeko giroa  
Iturriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043  
ORONDOZ - MUGAIRI

**Eskisaroi**  
Jatetxea  
Jaime Urutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

**ERRETE-GIA ORDOKI LIKOREAK**  
Parrilan egindako haragi eta arrainak  
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

**POTTOKI**  
Baztanberri Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfnoa: 948 581 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com  
Astelenehietik  
larunbatera  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

**BAZTAN**

## Patxi Urrutia kartzeleratu dute Garzon epailearen aginduz

Segurako operazioan 24.000 euroko bermepean aske utzi zuten

**ttipi-ttapa**

Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailearen aginduz Patxi Urrutia amaiurtarra eta Pernando Barrera kartzeleratu dituzte. Batasunaren izenean aritu direla-eta «*erakunde terroristako kide*» izatea egotzi die epaileak. Otsailaren 7an jakinarazi zuen Garzonek bere erabakia, eta egun horretan ziren deklarazioa hartzekoak, baina biek ere ez zuten deklaratu nahi izan.

Espainiako Poliziak otsailaren 4an atxilotu zituen Garzonek hala eskatuta. Senideek jakinarazi zutenez, otsailaren 4ko goizean Amaiurko bere etxera joan zen Urrutia, eta poliziak segika zituela erran omen zien etxekoei. Enkargutara atera omen zen gero, eta ez zen itzuli. Egun berean, arratsaldean, Patxiren anai-arreben Armaetxea etxea miatu zuten, atxilotua han zela.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

**2009ko inauterietarako guttiago gelditzen da** Gizakunde, Orakunde eta inauteriak ere joan zaizkigu. Hainbat herritan, lehenxeago edo geroxeago egin dira. Francoren garaian, debekatuak izan arren gure eskualdean ospatzen segitu zuten. Inauterietako astelehena eta asteartearekin Erratzun (damak), Arizkun (hartza), Elizondon mo-zorro desfilea, karrika eta baserrietan umorea, musika eta kolore bixiak ikusi genituen. Argazkian Erratzuko damak, xuri-xuriak, tunturra eta beren zanbonben erritmoan, bertze mozorrekinean batean ageri dira.

Segurako operazioan ere atxilotu zuten Urrutia, baina Auzitegi Nazionalan deklarazioa hartuta, 24.000 euroko bermea ordainduta aske utzi zuten. Segurako operazioaren se-

gida izan da azken hau. Atxiloteten harira, herritarrek egun berean protestan atera ziren Elizondoko karriketara. Baztango EAJK, bere aldetik, ohar batean amaiurtarra berehala

askatzeko eskatu zuen eta bere eskubideak errespetatzeko exijitu. Bide beretik, NaBaik ere atxilotetak gaitzetsi zituen, eta Alderdiaren Legearekin bat ez dato-rra oroitarazi zuen.



**PERTSONAIA**

Asier LIZARTZA

### Ohorezko Mailan ari den Pamplona futbol taldeak fitxatu du

Asier Lizartza Espartza gazteak salto garrantzitsua egin berri du futbolean. Orain arte Baztan Futbol Taldean aritu izan da arizkunarra, jubeniletan. Baina bere dohainez jabetuta hemendik aitzinera, bere kategorian maila gorenean ari den talde batekin jokatzeak aukera izanen du. Ohorezko Mailan ari den Pamplona Kirol Taldeak fitxatu du. Iruñeko talde hau jubeniletan maila gorenean ari den taldea da eta alde horretatik, aukera ezin hobea izan liteke Asierrentzatetorkizunari begira.

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967  
✉ maxene@terra.es

**Pitti**  
estabazioak

Tel: 616 513 491

Mendiaketa plaza, 34. ZUBETA

**ANTXITONEA**  
Trinketea

Jatetxea - Ostataua  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 • 948 581 853

## URDAZUBI

## Elizako apaingarriekin museoa eta liburutegia egiteko obrek aitzinera segitzen dute

Museo barreneko altzariak prestatzen eta antolatzen ari dira

### ttipi-ttapa

Urdazubik ere museo izanen du hemen dik guttira. Joan den urtean ekin zioten museo egiteko proiektuari eta dagoeneko obrak nahiko aitzineratuak daude. Eliza-Monastegiko goiko solairuan ari dira egiten eta elizako apaingarriena izanen da. Horrekin batera, dagoen bibliografia guztia bilduz liburutegia egiteko egitasmoa ere eskuartean dago.

Tartean sute aunitz izan badira ere, oraindik mantentzen den ondarea jendaurrean paratzea da helburua: mitra, apaizaren kapa, erlikia... Gisa berean, XVII. mendetik aitzinerakoak diren 900 liburutik goiti ere bildu dira eta horiek ere erakusgai paratu nahi dira. Honek guztiak, noski, herriko ondarea bultzatzeaz gain, turismoa eta indartzen lagunduko luke.

2005ean Artzapezpikuak Urdazubiko Santiago Bideko Lagunak Elkartearen esku utzi zuen klaustroaren gainaldearen zati bat, 20 urtetarako, eta honek elizarekin zerikusia duten objektuak bilduz museo egiteko baliatu du. Obrako gastuak bere gain hartuko zituela erran zuen Elkarteak. Bi urte beranduago, berriz, Elkarteak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten dirulaguntzak eskatzeko. Horren bidetik ailegatu dira laguntzak. Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuak emandakoarekin eta Nafarroako Kutxaren Zuk aukeratu, zuk erabaki proiektuaren bidez lortu den diruarekin subentzionatu baita. Aipatu, Nafarroako Kutxaren bidez, iaz 70 bat lagunek eman ziotela babesu proiektu honi. Momentu honetan, zaharberritze lanak



UTZITAKO ARGAZKIA

### Hurrengo urterarte aio inauteriei

Bertze txoko aunitzetan bezala, herrian ere egun ofizialekin egin ziren inauteriak. Giro ezin hobean eta ohiko harat honatekin joan ziren eta denek izan zuten ongi pasatzeko aukera. Argazkia astelehenarekin gazteak eskean ibili zirenekoa da. Ez zuten jateko eta edatekorik falta izan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Elizarekin lotura duten apaingarri guztiak bitrina eta erakustegietan antolatzen ari dira.

nahiko aitzineratuak daudela erran dute Udaltetik, eta museo barre-

nean altzariak prestatzen ari direla: bitrinak, erakustegiak...

Laster zabalduko dituzte Urdazubiko museo berriaren ateak.

Okindegia	Jatetxea	
<h1>Uxoa</h1>		
<p>OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata          JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)          Espezialitatea parrillan erretako jakietan          Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,          goxo goxoa!</p>		<p>Ordoki Industrialdea          Tfnoa: 948 453 403          31713 ARIZKUN</p>

## SARA

### Hauteskundeetan aurkeztuko diren zerrendak prest dira

Xokobia, ihiztarien egoitza inauguratu dute

#### Xan HARRIAGUE

Herriko kontseilurako lehiatuko diren bi zerrendak guztiz osatu daude. Aurtengoan bi izanen dira: Jean Aniotz-behere, ateratzen den auzapezaren *Segida*, eta Battit Laborden *Geroko Sara*. Aniotzbehere orain arteko taldearekin aurkeztuko da nagusiki. Horietariko hamabost duela zazpi urte jadanik presentatu ziren, baina taldea osatzeko bertze lau lagun hartu behar izan ditu bertze hainbertzek ez baitute berriz aurkeztu nahi izan. Battit Laborden zerrendaren bizkar hezurra duela 13 urte Henri Dutournierekin aurkeztu ziren 5 lagunek osatuko dute, eta zerrenda osatzeko hainbat lanbide eta adineko bertze 14 aurpegi berri badira.

#### Xokobia

Herriko ihiztarien egoitza berria inauguratu zuten joan den urtarrilaren 26an. Horren

kari, bazkari ederra egin zuten aurten Gaztain Lepo eta Ahuntz Bizkarraren lan egin zutenek. Horretaz gain, ihiztariak kontseilua gomiatu zuten, eta ordezkari batzuk han izan ziren egin dituzten moldaketa lanen ikusteko. Sukaldea guztiz berritu dute, eta profesionalen antzeko bat jarri. Nahi izanez gero alokatu daiteke, eta orduan ihiztarien elkarreko arduradunei zuzendu behar da.

#### Mus txapelketa

Errugbiko mus txapelketa heldu den otsailaren 23an eginen da usaian bezala Omordian. Parte hartu nahi dutenek han egon beharko dute 14:00etarako. Arratserako afaria prestatuko dute eta horregatik antolatzaileak eskertuko lukete norberak berea aitzinetik erreserbatzea 0559542480ra deituz asteazken eta ortziral arratsetan.



ARGAZKIA: ARANTXA LEIZAGOYEN

#### 'Geroko Sara' zerrenda

Zutik ezkerretik hasita: Christine Mendionde, Xalbat Leizagoien, Pantxo Barneix, Marie Helene Oronoz, Pettan Errandonea, Battit Laborde (zerrendaburua), Dominique Roudier, Monique Soudre, Pierre Indaburu, Henri Dutournier, Jean Michel Jauregi, Jean Michel Irazoki. Jarrita ezkerretik hasita: Michel Urbistondo, Trini Devoucoux, Frederic Barrenetxe, Patricia Sahastuume, Pierre Arotzarena, Christine Sorhouet, Jerome Barrenetxe.



ARGAZKIA: ARANTXA LEIZAGOYEN

#### 'Segida' zerrenda

Zutik ezkerretik hasita: Michel Libier, Jean Louis Ordoki, Mirentxu Azkarraga, Jamattit Indart, Annie Londaiz, Herve Soriano, Bittori Etxeberri, Jean Yves Zunda, Xantal Garat, Fabrice Iparragirre, Joset Etxegarai, Mañu Fagoaga. Jarrita ezkerretik hasita: Martin Goienetxe, Philippe Ivandekis, Ttote Mixelena, Patrick Iribarren. Jean Aniotzbehere (zerrendaburua), Tito Gorozurreta, Xabi Zunda.

**PIKABEA**  
harategia • urdaitegia  
janari prestatuak  
Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

HERDIBO  
ETXEBE  
EDXNTEGIZ  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Maïsan eta Véronique  
CADA

BURKAITZEA  
- ostatu  
- erretegia  
Zugireramundiko bidia, 3 km  
948 599 280 - URDAZUBI

**ZOANSA**  
MARKA GUZIEN KONPONKETA  
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

## SENPERE

# Dominique Dufau ohoratu du Euskaltzaleen Biltzarrak

Seaskak 95 000 euro bildu behar ditu aurten

## Franck DOLOSOR

Dominique Dufau notario eta herriko auza-pez zenari omenaldi kartsua eskaini diote berriki Euskaltzaleen Biltzarrak, Euskaltzaindiak eta Herriko Etxeak. Henri Duhau euskaltzaleak liburu interesgarria plazaratu du berriki Dufau anaien biziaz. Dominiqueren bizia eta lana dira idazlanaren ardatz nagusia eta horiek izan ziren omenaldi eguneko solasgai garrantzitsuenak ere. Nahiz eta euskara ofiziala ez izan, notarioa zenak agiri andana euskaraz izkiriatu zuen. Bere lana eta kargua galtzeko arriskua hartu zuela ohartarazi zuen Duhauk. Beskoiztarrak lan sakona egin du eta hortan André Ha-

risgain *Gaxinto* zenaren laguntza izan zuen. Gaxintoenean bazituzten Dufauk euskaraz idatzi zituen zenbait testu ofizial eta hau izan da lanaren oinarri. Euskarazko lehen testua San Blas Amotzeko kofradiaren arauena da. Keinua ederra da dudarik gabe San Blas laborarien patroina baita eta omenaldia saildu hunen egunear egin zelako, otsailaren 3an. Senpereko euskalkia aztertzeke baliagarriak dira Dufauen notario agiriak.

Andres Urrutia euskaltzainburuari eta Bilbon notarioa denari biziki interesatzen zaizkio Dufauen lanak. Oroitarazi zuen aintzek diotela euskarak ez duela tradizioz zuzenbidean eta

administrazioan. Dufau-ren lanek guziz kontrakoa frogatzen dute bere ustez. Euskarak historia ttiki eta laburra du agiri ofizialetan baina zerbait badela gogoratu zuen Urrutiak. Azpimarratu zuen Dufauk zerbitzua eskaini nahi ziela herritarreri, euskaraz osoki bizi zireneri. Idazlan hauek baliagarriak dira bere ustez gerora euskarazko zuzenbidea sortzeko eta finkatzeko. Holako ohiturarik ez dela izan hegoaldean oroitarazi zuen eta bere ustez baliteke testu gehiago agertzea Ipar Euskal Herrian. Omenaldian, hamarnaka euskaltzalek eta hiru notariok parte hartu zuten, Sanchette-Lannettek, Urrutiak eta Bessonartek.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Euskaltzaindiako eta herriko agintari gorenak Dufauen oroitarriaren aitzinean.**

## Seaskaren alde

Igandean, 9. Irratsei irratien emankizuna eginen da Euskal Irratietan Seaskako Integrazioa Batzordea laguntzeko. Sei oreneko saioaren bidez 95 000 euro bildu nahi litzukete 17 laguntzaile ordaintzeko. Badira jada nik zenbait urte Seaskako ikastoletan ahalmen urriko haurrak hartzen dituztela beren garapena laguntzeko. Buruilean hasi zen ikasturtean ahalmen urriko 18 haur dabilta 12 ikastolatan, hauen artean bat Senperekoan. Iaz integrazio batzordeak 1200 lagu-

nen eta 58 enpresen laguntza izan zuen. Aurten, Maialen Errotabehere Ezpeletako kantaria izanen da emankizuneko eta bestako laguntzaile nagusia. Irratsaioa goizeko 7etan hasiko da eta arratsaldeko oren batean bururatu.

## Behartsuei laguntzeko

Azkaine eta Senpereko Appel Détresse elkarteak kamioi bat bidali du berriki hirugarren munduko laguntzeko, jantzi, eskoletako tresnez eta joko betetik, aldi honetan 1 300 kilo.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrekak S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrekak S.L.  
Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



**Jose  
ALDABE MITXEO**

Urtarrilaren 8an hil zen, 88 urte zituela

GOIAN BEGO

*Gure ondoan ez zaude  
baina zaude gure bihotzetan.*

## ZURE SENIDE ETA BILOBAK

Egun hauetan gure ondoan izan zareten guztiei eskerrik asko.

Urrotzen, 2008ko otsailan.



## EZKONTZAK

**Jose Luis Pikabea Arribillaga** eta **Miren Olatz Aldako Odriozola**, Berakoa eta Irungoa, urtarrilaren 19an, Lesakan. **Xabier Paskal Mendiboure** eta **Amelia Lizasoain Ariztia**, Baionakoa eta Donamariakoa, urtarrilaren 12an Elizondon. **Oskar Nikolas Ziaurriz Iraizoz** eta **M<sup>a</sup> Jesus Goñi Arrupea**, Elizondokoa eta Lekarozkoa, urtarrilaren 26an Lekarozen.



## SORTZEAK

**Markel Korta Iratzoki**, Berakoa, urtarrilaren 23an. **Izaro Zunzarren Mariezkurrena**, Doneztebekoa, urtarrilaren 18an. **Yasin El-haou Berred**, Narbartekoa, urtarrilaren 27an. **Mikel Mendiburu Loiarte**, Zigakoa, urtarrilaren 21ean. **Itxaso Mendiburu Loiarte**, Zigakoa, urtarrilaren 21ean. **Izaro Lakosta Mariezkurrena**, Iruritakoa, urtarrilaren 25ean. **Iosu Arraztoa Bikondo**, Iruritakoa, urtarrilaren 29an. **Laiene Maiora Oteiza**, Gaztelukoa, urtarrilaren 28an. **Luma Otaño Boudin**, Sarakoa, urtarrilaren 3an. **Eñaut Jauregi**, Sarakoa, urtarrilaren 24an.



## HERIOTZAK

**Stephane Guei Yvon Monti**, Iruritan, urtarrilaren 30ean, 41 urte. **Jose Arriada Arratxea**, Arizkungoa, urtarrilaren 29an, 71 urte. **Mikaela Arretxea Larramendi**, Iruritakoa, urtarrilaren 30ean, 90 urte. **Manuel Iparragirre Apezetxea**, Arantzakoa, urtarrilaren 25ean, 57 urte. **Bernardo Lahurnagarai Irisarri**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 25ean, 79 urte. **Victoriana Bengoetxea Mariezkurrena**, Eratsungoa, urtarrilaren 26an, 85 urte. **Catalina Etxenike Mendikoa**, Iruritakoa, urtarrilaren 29an, 89 urte. **Antonio Offroi Herrera**, Berakoa, otsailaren 3an, 74 urte. **Seberiana Etxabide Irigoien**, Lesakakoa, otsailaren 4an, 89 urte. **Xaturnino Fagoaga Bereau**, Lesakakoa, otsailaren 5ean, 83 urte. **M<sup>a</sup> Jesus Korteia Goienetxe**, Gartzaingoa, otsailaren 6an, 73 urte. **Joset Arburua**, Sarakoa, urtarrilaren 10ean. **Pierre Mendionde**, Sarakoa, urtarrilaren 19an. **Antonia Pikabea**, Sarakoa, urtarrilaren 27an.



### Peio MARTIKORENA ALZURI

II. URTEURRENA

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

ZURE LANGILEAK

Venta-Peio Dantzarinea  
Ibardin-Luzaide



### Bautista IRIGOIEN JORAJURIA

Arantza, 2007/II/2  
I. URTEURRENA

*Urte bat pasa da zure irrifarra ikusi gabe. Baina beti zaude gure bihotzaren jabe.*

GOIAN BEGO

ZURE EMAZTE M<sup>a</sup> JULIA ETA FAMILIA



### Rufina IRIARTE MITXELENA

Sunbillan, 2007/II/25  
I. URTEURRENA

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

ZURE SEME-ALABA ETA ILOBAK

## PILOTA

# Malerrekako VI. eskuz binakako txapelketako finalista guztiak erabaki dira

Alebin eta benjamin mailako finalerdiak igande honetan jokatzekoak ziren

## ttipi-ttapa

Doneztebeko Erreka elkarteak seigarren urtez antolatutako Malerrekako eskuz binakako pilota txapelketaren finalista gehienak erabaki dira. Alebin eta benjamin mailakoak joan den igandean jokatzekoak ziren. Final guztiak martxoaren 8an jokatuko dira Donezteben.

Senior mailan bi partida jokatuko dira, ohi bezala: bigarren mailakoa eta elite mailakoa. Elite mailan, Aurrera Saizko Renobales eta Galarraga, Mololo Irigoien lesakarra eta Unai Iparragirre leitzararren kontra ariko dira.

Bigarren mailan, Imanol Mitxelena eta Mikel Iriarte, Anguita eta Joseba Madariagaren kontra ariko dira.

Gazteen kategorian Jon Jaunarena leitzarrek eta Bergerok, Umorre Onako Oier Apezetxea eta Txarutako Xabier Madariaga izanen dituzte aurrez-aurre.

Kadeteen mailan, Txarutako bi bikote lehiatuko dira. Beñat Oronoz eta Iban Juarena alde batetik, eta Iribarren eta Etxamendi bertzetik.

Infantil mailan, Etxarri Aranazko Gure Pilota elkarteko Murgiondo eta Lasak, Oiartzungo Oiarpe taldeko Sarasti eta Basasororen kontra jokatuko dute.

Alebin eta benjamin mailako kanporaketak kokka bat gibelerago daude txapelketa honetan. Hala, asteburu honetan erabakitzekoak ziren finalerdiak.



ARTXIBOA

## Aspe enpresarekin entrenatzeko kontratua sinatu du hurrengo hiru urterako Jaunarenak

Etorkizun haundiko pilotaria izan daitekeela argi dago, eta horren harira dator, Aspe enpresak Jon Jaunarena 15 urteko pilotari leitzarri egin dion proposamena. Hurrengo hiru urteotan Asprekin entrenatzeko kontratua sinatu du Jaunarenak. Enpresak zein bere inguruak gauzak astiarekin egin nahi dituzte eta hortaz hasieran entrenatzeko elkartuko dira.

## Eskualdeko hiru bikote Nafarroako paleta goma txapelketako finalerdietan

Laugarrenak ere sailkatzeko aukera haundiak ditu

## ttipi-ttapa

Lesakako Batzoki elkarteak antolatzen duen paleta goma txapelketatik ateratako lau bikote ari dira parte hartzen Nafarroako txapelketan. Dagoeneko finalerdietarako txartela lortua dute lehen mailako bi bikoteek, Antxordoki eta Telletxeak, eta Rodriguez eta Almandozek. Bigarren mailan ere, bi partidak irabazita Oskariz eta Berho fi-

nalerdietandaude eta azken jardunaldi honetan garaipena behar zuten Etxenike eta Iñarreak finalurrekoetan sartuko. Lehen faseko azken jardunaldia asteburu honetan jokatzekoa zen.

Urtarrilaren 26an, Iruñean, bigarren mailan, Etxenike eta Iñarreak 22 eta 30 galdu zuten Etxarte eta Espazaren kontra, baina Oskariz eta Berhok 30 eta 28 irabazi

zieten Garate eta San Martini. Lehen mailan, berriz, Guillermo Antxordoki igantziarrak eta Imanol Telletxea lesakarrak, 30 eta 18 irabazi zieten Blasco eta Zubiriri. Iñigo Rodriguez eta Josu Almandoz lesakarrak, berriz, doi-doi, 30 eta 29 irabazi zieten Celloren eta Lladori.

Otsailaren 2an Lesakan, bigarren mailan, Oskariz eta Berhok 30



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

## Lesakako txapelketa irabazita, Nafarroakoan bikain ari dira Telletxea eta Antxordoki.

eta 12 irabazi zieten Perez eta Espinali eta Etxenike eta Iñarreak 30 eta 16 irabazi zieten Simon eta Lorenteri. Lehen mailan, Antxordoki eta

Telletxeak 8an utzi zituzten Paris eta Lopez eta Rodriguezek eta Almandozek 30 eta 25 irabazi zieten Merindano eta Sanchezi.



## PILOTA

# Bortzirietako eskuz banakako txapelketaren finalak jokatu ziren

Berako Eztegarra pilotalekuan ilbeltzaren 26an

Aitor AROTZENA

Ilbeltzaren 26an jokatu ziren Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako eskuz banakako zazpigarren pilota txapelketako finalak. Denetara 95 pilotarik parte hartu dute txapelketa honetan, bederatzik kategoriaz ezberdinetan banatuak.

**Ttikiak A** mailan, Gure Txokoako bi pilotariren arteko finala jokatu zen. Mikel Eltzaurdiak 18 eta 13 irabazi zion Yago Canterori, partida polit baten ondotik. Aipatzekoa da biek bikotea osatu zutela eskuz binakako txapelketan eta txapeldun atera zirela. Beraz, Eltzaurdiak binakako nahiz banakako txapela jantzi ditu eta Yago, txapeldun izan da binakako eta azpitxapeldun banaka.

**Ttikiak B** mailako partidari, berriz, Lesakako Arkupeko bi pilotariren arteko lehia ikusi zen. Jorge Agirrek 18 eta 8 irabazi zion Jon Leizari.

**Umeak B** mailan partida ikusgarria eskaini zuten Igantziko Biltokiko Enaitz Telletxeak eta Etxalarko Altxatako Andoni Iribarrenek. Azkenean igantziarra nagusitu zen, 18 eta 10. Aipatzekoa da Enaitz Telletxeak berez dagokion adinari baino kategoriaz bat goitiago aritzen dela eta halere txapela lortu duela.

**Umeak A** mailan ere Igantzira joan zen txapela. Biltokiko Oihan Canabalek 18 eta 14 irabazi zion Gure Txokoako Peio Migelenari. Honela, binakako txapelketan bezala, banaka ere azpitxapeldun izan da Migelena.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

95 pilotarik hartu dute parte eskuz banakako zazpigarren txapelketan.

**Kimuk B** mailan, Lesakako Arkupeko bi pilotariren arteko norgehiagoka polita ikusi zen. Azkenean Aitor Altzugarai 18 eta 14 irabazi zion Ander Legasari. Honela, Altzugarai binaka azpitxapeldun izan ondotik, buruz buruko txapelarekin joan zen etxera.

**Kimuk A MAILAN PARTIDA GOGORRA**  
**Kimuk A** mailan ere ikuskizun ederra eskaini zuten Berako Gure Txokoako Beñat Mitxelenak eta Igantziko Biltokiko Unai Telletxeak, bi pilotareri hauek aurre aritzen diren bakoitzean bezalaxe. Beñat Mitxelenak 18 eta 12 irabazi zion azkenean Unai Telletxeari. Beñat Mitxelenak binakako txapela ere irabazi zuen eta buruz buruko ere merezimendu osoz irabazi zuen.

**Kimuk A MAILAN PARTIDA GOGORRA**

**Haurrak B** mailan Arkupeko Javier Maiak 18 eta 4 irabazi zion Etxalarko Altxatako Xabier Gallardoneri. Gallardon, eskuz binakako txapelketan bezalaxe, azpitxapeldun izan zen.

**Haurrak A** mailako finalean Arkupeko Unai Zamoranok 18 eta 4 irabazi zion Igantziko Biltokiko Adur Yanciri. Lesakako pilotaria azpitxapeldun izan zen bina-

naka, baina buruz burukoan txapela lortu du.

Azken partidokan, **kadete mailan**, elkar ongi ezagutzen duten bi pilotareri lesakarako aritu ziren nor baino nor, Josu Sanjurjo eta Mikel Maia. Sanjurjok 18 eta 12 irabazi zuen. Aipatzekoa da, bi pilotari hauek elkarren kontra jokatu zutela eskuz binakako finala ere. Orduan Maia izan zen txapeldun eta Sanjurjo azpitxapeldun. Banakakoan, beraz, txapela buruz aldatu zen.

Finalak ikustera hurbildu zen jendea gustora zegoen pilotalariek eskeinitako ikuskizunarekin eta esku-zarta ederrak entzun ziren Eztegarra frontoian goiz osoan. Finalak bukatu ondotik sari banaketa egin zen eta txapelketan parte hartu zuten guztiei oroigarria eman zieten.



Leiza eta Agirre.



Eltzaurdia eta Cantero



Iribarren eta Telletxea.



Migelena eta Canabal.



Altzugarai eta Legasa.



Mitxelenak eta Telletxea.



Gallardon eta Maia.



Yanci eta Zamorano.



Maia eta Sanjurjo.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### IPUIN KONTALARIAK

#### BERA

**Otsailaren 27an**, Maite Franko ipuin kontalariak *Lau ipuin pinpirin* izeneko ipuina kontatuko du 4-8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.  
**Martxoaren 14an**, Miren Camison ipuin kontalariak *Animalien hitz sekretuak* izeneko ipuina kontatuko du 4-8 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan Liburutegian.

### IKASTAROAK

#### BERA

**Otsailaren 23an**, Artisautza eta eskulan lantegia, 4 eta 12 urte bitartekoentzat. Izen ematea Ricardo Barojan, otsailaren 15a baino lehen.

### OSPAKIZUNAK

#### ARANTZA

**Otsailaren 23an**, Mozorro Eguna. Xehetasunak 12. orrialdean.

#### ELIZONDO

**Otsailaren 23an**, *Haur Kantari Jaialdiak 2008*, Lur dantza lekuan, 11:00etan.

### BILKURAK

#### LESAKA

**Otsailaren 20an**, Dolu-Babes taldearen bilera, Senda Fundazioaren eskutik. Antoiu 27-2 aretoan, 19:30etik 21:00etara.

### BERTSO AFARIAK

#### BERA

**Otsailaren 16an**, bertso afaria Zubiondo sagardotegian, Lizaso eta Egañarekin. Txartelak 30 eurotan salgai Zubiondon edo erreserbatzeko 948 625472 telefonora deitu.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Inauterietako DVDak salgai paratu ditu ttipi-ttapak

GAINERAKOAN, OHIKO MARTXA TELEBISTAN

Dagoeneko herri guztietan pasatu dira inauteriak eta urtero bezala, ekitaldi eta momenturik ederrak bilduz DVDak salgai paratu ditu **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK**. Interesatuak 948 635458 telefonora deitu beharko dute, eta etxean jaso nahi izanez gero ere, bidaliko dira.

Baina behin inauteriak pasatuta ohiko martxari ekin diote telebistako lankideek. Horren adibide, ortziral honetan eskainiko dute erreportajea. *Pobre gara*. Halaxe du izena Joseba Irazoki Berako musikariak eta Belardian taldeak argitaratu duten azken lanak. Ez da, ordea, beratarren lehenbiziko

lana, lehen ere saila kaleratuak baititu. Estilo aldetik inongo zeri-kusirik ez daukaten taldeetan aritua da, rok-and-rola, bluesa, folka... Disko hau 12 kantuz osatu du eta Hirusta Records musika etxearekin argitaratu. Protagonistak berak bere azken lana nola aurkezten digun ikusiko dugu **TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN** ortziraleko erreportajea, Goizalde Urdanpilleta kazetaria berarekin egon baita. Lan berrian, hirukotean egin du lan Josebak, Mikel Artieda baxuarekin eta Fernan Leitza bateariarekin. Dena den, urte luzetako ibilbidea ere mintzagai izanen dute ortziral honetan, otsailak 8.

## DISKAK



**Mikel URDANGARIN**  
**Anek idatzi dit zutaz**  
 KAP, 2007

Ez omen da gauza bera bazten batean jarrita bizitza nola iragaten den ikusiz heldutasunaren zain egotea, eta erabakitasunez, adorez, kemenez eta ondo eginitako lanaren segurtasunaz haren bila joatea. Eta inori zalantzaren bat gelditzen bazaio, hemen dator Mikel Urdangarin *Anek idatzi dit zutaz* bere azken diskoa besapean duela. Lehen, bigarren eta hirugarren pertsonako bizipen berriak berrituta eta *Anek idatzi dit zutaz* diskoan berrikuntza ugari bildu ditu Mikel Urdangarinek. Hauxe omen da hamar urtez ibilbide artistikoa ibili ondotik autoekoizpenaren erakusle. 13 kantuz osatutako diskoa kaleratu du, hainbat ezagunen hitzak tartean direla: Unai Iturriaga, Kirmen Uribe, Jon Maia, Igor Elorza, Sustrai Kolina, Xabier Amuriza eta Iñaki Aurrekoetxea.

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urtarrilaren 25etik otsailaren 1era bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
 (19 kilo): 25,00 € (=)  
**Zerri gizena**  
 0,965 € kilo. (=)  
**Zerramak:**  
 0,290€ Kg/bizirik. (=)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,16 (=)  
**1.koa** 3,85 (=)  
**2.koa** 3,29 (=)  
**Urruxak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,28 (=)  
**1.koa** 3,97 (=)  
**2.koa** 3,39 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.  
**Aretze tikiak**  
 (15 egun ingurukoak):  
**Aretze mestizoak:**  
 urruxak 130,00 (+35,00)  
 idixkoak 210,00 (+35,00)

**Aretze nabarrak:**  
 urruxak 108,00 (=)  
 idixkoak 130,00 (=)  
**Zaldikoak:** €/k  
 Sortuberriak: 3,08/3,18  
 Zaldi-behorrak: 1,73/1,93  
**Bildotsak:** €/k  
 6-8 kilokoak: 4,80/5,40  
 8-10 kilokoak: 3,50/4,60

## JAKIN BEHARREKOAK

# Argindarraren itzalaldien kalte-ordainak jasotzeko zer egin?

Urteko gastuaren %10 jaso daiteke gehienez

Argi elektrikoa eten izanaren kalte-ordainak jasotzeko eskubide osoa du kontsumitzaileak. Hala dio legeak ere, baina jasoko duena ez da urteko gastuaren batzertzekoaren %10a baino altuagoa izan. Edozein kasutan, kalte-ordainak jasotzeko ezinbertzekoa da erreklamazioa.

Legeak kontsumitzailea babesten du, eta herrigunean bizi diren urtean sei orduko iraupena duten argindarraren etenak jasaten baldin badituzte edo garai berean 12 itzalaldi eduki, hurrengo urteko lehen hirulekoko fakturan beharpena izan du. Horrez gain, itzalaldi horretatik, ondusunen bat kaltetua ateratzen bada bertzelako konpentsazioa ere eska daiteke.

Etenaldiaren iraupenaren arabera



**Argindarraren mozketa egin behar dutenetan, 48 ordu lehenago abisatu behar dute enpresek.**

da, kaltetuak jaso duen ordaina. 1995/2000 Errege Dekretuaren arabera, kalte-ordain hori honela kalkulatu da: kontratatutako argindar potentzia, etenaldiaren iraupena eta legeak onartzen duen gehienezko mozketen iraupenaren arteko aldearekin biderkatuz. Eta kontsumitzailearen urteko batzertzeko gastuaren %10a baino tikiagoa izan

da beharpena. Gisa berean, kalte-ordainak altuagoak izan dira kaltetuak gehiago direnean, erreklamazioa kopurua altuagoa denean, alegia. Erreklamazioak egiteko bide desberdinak daude, telefono bidez zein idatziz, baita Internet bidez ere. Halare, adituek idatziz egitea aholkatzen dute eta ahalik eta zehaztasun gehienak ematea.

Behin erreklamazioak jasotakoan, enpresak hilabete bateko epea du erreklamazioa ontzat emanen duen ala ez adierazteko. Baiezkoa bada, bankutik berehala jasotzeko ordaina kontsumitzaileak; kexa baztertzeko bada, ordea, bertze bideak hartu behar dituzte kaltetuak, hala nola, enpresaren erreklamazio orri ofizialak betez. Enpresaren kontrako helegitea ere paratu daiteke.

Kasu guztiek ez dute kalte-ordaina jasotzeko eskubidea bermatzen. Argindarraren mozketa eguraldiak edo hirugarren batek eragiten bada, edo iraupena sei ordu baino guttiagokoa bada, erraterako, ez da ordainik emanen. Azkenik, aipatu, enpresak mozketak egin behar baditu, 48 ordu lehenago abisatu behar duela.

## LIBURUAK



Bela Kabelatik Ternuara

**Xabier ETXANIZ ERLE**

PAMIELA, 2008

Bernardo Atxaga idazlearen obra barruan Haur eta Gazte literaturak izan duen eboluzioa eta eragina aztertzen dira saiera honetan. Asteasun jaio-tako idazleak beti tartekatu ditu haur eta helduentzako obrak bere produkzioan eta ikerketetan bereizturik aztertu badira ere, nabarmena izan da bi esparru horien arteko harremana. Horrela, helduen obratan izan diren aldaketak, estilo, tematika, lexikoa... sarritan haur eta gazte literaturatik ja-

so ditu Atxagak. Liburu honetan murgiltzen denak, beraz, bere obra hobeto ezagutzeko parada izango du; 80ko hamarkadaren hasieratik gaur egunera emaniko eboluzioa eta genero ezberdinen artean izaniko harremana. Hori guztia oso egitura berezia duen obra batean, idazleak hitz egiten baitu hasieran bere obrari buruz eta obrak, amaieran, idazleari buruz. Saio eta testigantza liburua da hau, 94 orrialde dituen.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

### MENDI ATERALDIAK

#### BAZTAN

**Otsailaren 17an**, Aizkolegira mendi ateraldia, Baztango Mendigoizaleak antolatuta.  
**Otsailaren 24an**, Alkotzera ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak taldeak.  
**Martxoaren 2an**, Oteixonera ateraldia Baztango Mendigoizaleek antolatuta.

### HITZALDIAK

#### LESAKA

**Otsailaren 29an**, *Emakumea eta Kontsumoa* izeneko hitzaldia eskainiko du Nekane Juradok Arrano Elkarteak, 20:30ean.

### GOIZUETA

**Otsailaren 25ean**, *Sexualitateari buruzko* hitzaldia eskainiko du Amaia Vazquezek eskolako jangela, 15:00etatik 16:30era.

### SENERE

**Otsailaren 15ean**, inauteriei buruzko hitzaldia, 18:30ean Saint-Christophe laborantza ikastegian.

### KONTZERTUAK

#### ELIZONDO

**Otsailaren 23an**, *Gu ta Gutarrak*-en kontzertua Lur dantzalekuan, 20:00etan. Sarrera: 5 euro.  
**Martxoaren 1ean**, *Berri txarrak* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30ean. Sarrera: 12 euro aitzinetik, eta 15 euro takilan.

### ZINEMA

#### LEITZA

**Otsailaren 15ean eta 17an**, *La boda de tuya* filma, Wang Quan'an zuzendariarena. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).  
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIZAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

### LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

### MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

### ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

### DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

- 801. Agurrak

## ADOS

**ELIZONDO.**  
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.  
**DONEZTEBE.**  
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.  
**BERA-LESAKA.**  
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.  
**NARBARTE.**  
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.  
**DONEZTEBE.**  
- Partzela urbanizatua salgai.  
**DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.**  
- Pisuak, apartamentuak, baserriak, etxeak, bordak eta lur eremuak salgai.  
**BAZTAN-BIDASOA.**  
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberritu beharrekoak.

**PROMOZIO BERRIAK.**  
**GARTZAIN.**  
- Familia bakarreko bi etxebizitza, 600 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
**ARIZKUN.**  
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitza lur eremuarekin.  
**IRAIZOTZ.**  
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trastelekua eta aparkalekua.  
**AGOITZ.**  
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.  
**ARIZKUN.**  
- Bi familia etxebizitza lur eremuarekin.  
**ORONÓZ-MUGAIRI.**  
- Bi familiako etxebizitza lur eremuarekin.  
**ELIZONDO.**  
- Adosatuko lorategiarekin.

INFORMA ZAITEZ!  
948 451 841 / 948580705  
www.ados-inmobiliaria.com

## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**LESAKA.** 229 m<sup>2</sup>ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurraekin eta lizentziarik salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotore bat interesatua egonez gero, permuterako prest. 40 milioi pza. ☎678 526091.



**IRUN.** 87m<sup>2</sup>ko pisua salgai, 3 logela, 2 bainugela, trastelekua eta garajea. Mobleztatua. Igogailuarekin. Prezio interesgarria. ☎629 032752.  
**ZUGARRAMURDI.** Bifami-

## ANZABAL INMOBILIARIA

### BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

### IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

### ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuko bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804  
Faxa. 948 581 459  
anzabal@anzabal.com

## andueza

**NARBARTE:**  
- 85m<sup>2</sup>ko pisuak, 20m<sup>2</sup>ko garajea, 100m<sup>2</sup>ko baserriarekin.  
30.500.000 Pza.

- Lur eremu erakargarria  
3.000m<sup>2</sup>. Txi eta hobia  
25.000.000 Pza.

**GAZTELU:**  
- Bi familiako etxebizitza salgai, 300m<sup>2</sup>ko lorategiarekin. 42.000.000 Pza.

**DONEZTEBE:**  
- Herri erdian, 107m<sup>2</sup>ko pisu berri salgai.  
42.000.000 Pza.

**ORONÓZ:**  
- Errehabilitazio dagoen apartamentua salgai.  
150.000€

- 140m<sup>2</sup>ko pisu salgai.  
120.000€

- Errehabilitazio dagoen 115m<sup>2</sup> etxebizitza bereko herriko solerria salgai.  
Lorategiarekin 200.000€.

**ELIZONDO:**  
- 130m<sup>2</sup>ko 3 toilet salgai.  
Solairu bakarrekoak, eskalerrak gabekoak.  
Oso erresaka, 400m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

## BASERRIAK ERE SALGAI

T. 948 23 88 16  
M. 620 20 87 87

www.habitaz24.com/andueza

lientzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m<sup>2</sup>koa. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea,



## Baztango

promoción inmobiliaria

**PROMOZIO BERRIAK:**  
**IRURITA:** 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gurtiz eraberritutako eraikinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.  
**IRURITA:** Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu personalizaturako aukera.  
**BERA:** Zaharberritutako eraikin tradizionalen, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster emanen dira.  
**DONEZTEBE:** 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gurtiz eraberritutako eraikinean.  
Errehabilitazio zerranda irekia.

Kattonberri karrika, 4  
31780 Bera. Navarra

Tfn. 948 630552  
Faxa 948 630106

Donezteben  
Aparat zonaldean  
eraikitzen ari den  
pisu bat salgai.

617 461 649

egongela-jangela, itxitako garajea. 600m<sup>2</sup>ko lorategia. 295.000 euro. ☎615 744433.  
**NARBARTE.** Etxea (280m<sup>2</sup>) eta lur eremu ederra (5.500m<sup>2</sup>) salgai Narbarte eta Legasa artean 528.890 euro. ☎626 128475.



**LESAKA.** 110m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, Bittirian. Bista onak eta prezio negoziagarria. ☎670 319380/ 607 769519/ 948 637347.

**BERA.** Pisua salgai Kanttonberri. ☎948 630600.

**BERA.** Legia karrikan 92m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎948630821/ 661115332.

**BERA.** 78m<sup>2</sup>ko pisua salgai. ☎609 708797.

**DONEZTEBE.** 97m<sup>2</sup>ko pisua eta bajera salgai. ☎655573763.

**ARIZKUN.** Pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela,

komuna eta garajea. ☎667 319890.

**BENICARLO (Castellon).** Pisu berria salgai. 108.000 euro. ☎608 357617 (22:00etatik aitzinera deitu).

**ERATSUN.** Bizitzen jartzeko moduan dagoen etxebizitza mobleztatua salgai. Lur-eremua badu. ☎609 404229.

## ETXEBIZITZAK 109 Errentan eman

**IRUÑA.** Pisu mobleztatua errentan emateko. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde ekipatua bizitzen jartzeko. Garajea eta autobus-garalekua. Buztintxurin. ☎637 136542/ 689 950350.

**DONEZTEBE.** Zazpigarurte auzoan 104m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldea, jangela, 2 komun eta trastelekua. ☎638495653.

## GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

**LESAKA.** 20m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

**DONEZTEBE.** 80m<sup>2</sup>ko haurerentzako arropa denda salgai, errentan emateko aukerarekin. ☎669 266192.

## GARAJEAK/LOKALAK 108 Erosi

Kotxe zahar bat berehala eta

luzaro mugitu gabe uzteko lekua behar da: **pabiloia, lonja...** ☎636 072732.

### **GARAJEAK/LOKALAK** **109 Errentan emateko**

**ELIZONDO.** 60m<sup>2</sup>ko lokal komertziala errentan emateko. Berogailua eta komunarekin. Komertzio bat jartzeko prestatua. Toki onean. ☎655 556422.

### **ZERBITZUAK** **205 Zurginak**



**ARANTZA**  
Zurgindegia.....  
Klase gututako zurgin lanak  
Eskatu zurekintuak konpromisoak gabe  
Bere Nagai Errentak  
Tel: 948 634 548 - 447 810 314  
Garaioa - 40002

### **ZERBITZUAK**

### **208 Bertzelakoak**



**BORDA**  
PLADUR LANAK  
ISOLAMENDUAK  
DEKORAZIOA  
ERABERRITZEAK  
SABAI MODULARRA  
Albino: 47-8 ZERBAK  
berberrak@telefonos.net  
Tlfno/Fax: 948 637 546  
Buz: 409 437 277

### **LANA** **301 Eskariak**

**Emakume** batek adinekoak zainduko lituzke, gau eta egunez. Esperientziaduna. ☎948 631048.

**Neska euskaldun** batek edozein lan eginen luke. ☎669180779.

**Emakume euskaldun** batek adineko pertsonekin lan

eginen luke, gauze eta goizez. ☎664 545925.

### **LANA** **302 Eskaintzak**

**BERA.** Mekanizatu enpresa batean fresatzaile behar da. ☎948 631167 (goizez).

**BERA.** Auzoa ostatu-jate-txean zerbitzari euskalduna eta arduratsua behar da. Esperientziaduna. ☎605 864355.

**SUNBILLA.** Kanpinean eguneror lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎948 450540 (12:00etatik 16:00etara).

**OITZ.** Posadan zerbitzaria behar da, bi asteburutik behin lan egiteko. ☎948 451951.

**ELGORRIAGA.** Sukaldaria behar da. ☎646 425953 / 637744717.

**SUNBILLA.** Urte inguruko bi haur zaintzeko pertsona behar da. Astelehenerdik ortziralera, 7:30etik 12:30era. ☎678 537607.

### **MOTORRA** **501 Salerosketak**

**Golf TDI** autoa salgai, 2000. urteko azarokoa, aire-klimatizagailua, CD irakurgailua... Egoera onean. ☎620 249262.

**Opel Astra familiarra** salgai. NA-AT. ☎689 531012.

**Citroen C3** kotxea salgai, 0 kilometrokoa eta extra guztiakin, 10.500 eurotan. ☎628 015933.



**Seat Ibiza** 1.9 diesela salgai, 5 atekoa. NA-AT. ☎606192829.

**Renault Twingo Easy** autoa salgai, 1995ekoa. Mer-

ke. ☎948 630542.

**Volkswagen Touareg** mendiko autoa salgai. Beltza da, 2005ekoa, extra aunitzekin. 35.000 km, egoera onean. ☎661 277945.

**Golf IV TDI** autoa salgai, 2000ko azarokoa, 100 CV, txuria, 5 ate, klimatizagailua, mp3a. Egoera onean. ☎620 249262.

**Beta Ark** motorra salgai, 50 c.c. ☎943 009233 / 630822018.

### **MOTORRA** **502 Tailerrak**



**GANIX**  
TAILERRA  
Italgaiak mekanika eta elektrizitate  
BERA FIAT zerbitzua  
Bilbo, 9. 948 630 669

### **TALLERES SANTESTEBAN** 948 450282 • DONEZTEBE

**AUTO IA BERRIETAN**  
**ESKAINZA ZABALA**  
(6-12 hilabeteak)  
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

**BIGARREN ESKUKOAK**  
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Opel Corsa, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI.

### **MENDAUR MOTOR** 948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

### **ANIMALIAK** **602 Salerosketak**

10 ardi, 6 artantxo eta 2 ahariko salgai. ☎948 634053.

### **DENETARIK**

#### **701 Galdu/aurkituak**

**Anteajo** borobil zaharrak (alanbre malguzko besoak) **galdu** nituen inauterietako astelehenean, otsailaren 4an, Beran. Balio sentimental handi xamarra dute. Inork aurkitu baditu deitu: ☎605 453499.

### **DENETARIK** **702 Salerosketak**

**Negutegia** salgai, 2 euro/m<sup>2</sup>. 9,5m<sup>2</sup>ko zabalera. ☎645 013213.

Mengascini markako **akordeoia** salgai. 96 bajo ditu. 3 urte. ☎638 938401.

txeko kateak (15 eurotan, 165-190 gurpilentzat); Play Station bolantea (25 eurotan) eta irrati kasetta-CDa autorako (50 eurotan). ☎617 225157.

**Sukalde ekonomikoa** salgai, alemana, kalefaktora eta egoera onean dagoena. ☎656 786517.

### **HARREMANAK** **801 Agurrak**

Aupa **Inaki, Mattin, Igor, Ainara, Imanol** eta **Joseba!** Bortziriak zuekin! Eutsi gogor! Presoak etxera!

Hainbat gauza salgai: ko-



**ttipi-txartela**  
deitu eta egin zurea!!  
948 635 458

KIROL DENDAK			
IPARLA KIROLAK	Elizondo	%8	(30 €tik gora)
ZELA KIROLAK	Bera	%5	
AGARA KIROLAK	Bera	%5	Krit. artikulatua
LENTZERIAK			
MARICRUZ	Doneztebe	%10	(30 €tik gora)
MARICRUZ	Elizondo	%10	(30 €tik gora)
DENE	Lasaka	%10	Lentzerian
LIBURU DENDAK			
NAFARRPRESS	Elizondo	%10	Liburu eta leku mugakotan Tostatu eta liburuak ez partekatzen artikulatua
MAMUR	Leiza	%10	
OPTIKAK			
OSTARGI	Bera	%10	(30 €tik gora)
ARGIBEL	Elizondo	%10	antzu mugakotan graduakotan antzu mugakotan
ARGIBEL	Doneztebe	%10	
PENTSUAK			
MENDAUR	Doneztebe	%5	Zakura, kalera...
TINDATEGIAK			
JAIONE	Doneztebe	%10	(12 €tik gora)
ZAPATA DENDAK			
KALOTXA	Bera	%5	(18 €tik gora)
OSTIZ	Doneztebe	%10	
TXONELKA	Lasaka	%10	

**39 komertziotan deskontuak**

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**ANE TELLETXEA IGOA** lesakarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 19an. Zorionak eta 7 muxu haundi, Aitor, Leire, Orti eta Lexuri zure laguneren partetik.




**ANE TELLETXEA IGOA** lesakarrak 7 urte beteko ditu otsailaren 19an. Aunitz urtez Pello anaiaren eta Harizpeko familiaren partetik.



**MARITXU BALEZTENA** leitzarrak otsailaren 12an urteak bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Baina berexiki bere biloba Iraiaren partetik. Egun ona pasa dezazula.



**ANDER GAMIOK** 3 urte bete ditu otsailaren 3an. Zorionak eta 3 muxu haundi Elixabethen partetik. Segi beti bezain alaitua izaten!!!



**MAREN CASADO SAROBE** iruindarrak lehenbiziko urtea otsailaren 4an bete du. Zorionak eta muxu bat gure sorgintxoarentzat aita-txo eta amatxoeren partetik.



**OIHAN LUJANBIO SANCHEZ** sunbildarrak 2 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Sunbillako **OIHAN LUJANBIO SANCHEZ**ek otsailaren 5ean 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**IRAIA MARTINIKORENA ARIZTIMUÑO** 4 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak "pituxi" eta muxu haundi haundi bat atata, ama eta familia guztiaren partetik.



Aurtizko **IMANOL MARIEZKURRENA SANSIÑENAK** otsailaren 16an 8 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren eta berexiki Alazne eta Uxeren partetik.



Aurtizko **UXUE MIKEOK** otsailaren 15ean urtea beteko du. Muxu haundi bat "sorgina" familia guztiaren partetik.



**IRAIA MARTINIKORENA ARIZTIMUÑO** 4 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak "sorgintxo" eta ea noiz etortzen zaren bisitan Aurtitzera. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Ainarra, Arkaitz eta Ekiñeren partetik.



**AITOR OSTIZ ARIZTIMUÑO** leitzarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak gurasoen partetik eta berexiki zure arreba Oihanaren partetik. Ongi pasa eguna!



**AITOR OSTIZ ARIZTIMUÑO** leitzarrak 6 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak Iraiaren partetik. Txokolate goxo goxoa prestatu!



**GAXUXA ZELAIETA EULATEK** otsailaren 18an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat Igantziko familiaren partetik.



Gatzeluko **ANDER GAMIOK** 3 urte bete ditu otsailaren 3an, eta **ASUN GAMIOK** ere bai. Zorionak familia guztiaren partetik, berexiki Saioa eta Ekiñeren partetik.



Arantzako **Mª JOSEFA OSKOZEK** 92 urte bete ditu otsailaren 8an. Zorionak eta aunitz urtez amatxi familia guztiaren partetik! Segi beti bezain bixkor! Muxu bat!



Iuriritako **NAROA ELIZAINZIN ALZUARTEK** 4 urte beteko ditu otsailaren 24an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**IRATXE LOIARTE PETRIKORENAK** otsailaren 19an 4 urte beteko ditu. Zorionak etxekoaren partetik.



**BEGOÑA SALAZARREK** urteak bete ditu otsailaren 2an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**IKER IRIARTE** lesakarrak 8 urte eginen ditu otsailaren 15ean. Aunitz urtez familiaren partetik.



**NAIA BERRUET BALLESTER** iruindarrak bi urte bete ditu otsailaren 11n. Muxu haundi bat Behobiako eta Lesakako familiaren partetik.



Arantzako **KAIET** eta **BEÑAT ANDUEZA GOROSTIZAK** otsailaren 6an eta 23an urtea eta 4 urte beteko dituztelako, zorionak eta patxuk Arantzako eta Elgoibarko familien partetik.



Etxalarko **ANDONI** eta **IZARO IRIBARREN** INADURUK otsailaren 21ean eta 26an 9 eta 13 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.

Sagarretik sagardoa **DUD** eta **GIDA**ren **ZOZKETA**



**Ttipi-txartela** baduzu,  
eta parte hartu nahi baduzu!!  
**DEITU** otsailaren 29a baino lehen  
**948 635 458ra.**

**Ttipi-txartelarekin beti irabazten da!**

*Deskontuak, zozketak, aldizkaria doan...*

Eskatu zurea 948 635 458 telefonoan

**5ale**  
zozketarako dira






• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

[www.betikopvc.com](http://www.betikopvc.com)

[betikopvc@terra.es](mailto:betikopvc@terra.es)

Ordoki industrialdea z/g - Tel.: 948 453 259 - Faxe: 948 453 423 - 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

**Lur**

otsailak **16** larunbata

# NOREKIN DANTZA

00:30 8€

otsailak **23** larunbata

# HAUR KANTARI JAIALDIAK 2008

11:00

# GU TA GUTARAK

Unai Iturriaga • Igor Elortza • Josu Zabala • Aitor Rubio • Xanpe

20:00

5€

Antolatzailea:



# LUR D JOTAK

01:00

8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

martxoak **1** larunbata

# BERRI TXARRAK

00:30 12€ aurretik 15€ takillan

BISITA EZAZU  
GURE WEB ORRIA

[LURELIZONDO.COM](http://LURELIZONDO.COM)

Laguntzaileak:

**Heineken**



Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK